



Sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktimen eta hortik bizirik irtendakoen diagnostikoa eta haiekin lan egiteko esku-hartze sozialeko plana



Enplegua, Gizarte Inklusioa eta
Berdintasuna Sustatzeko Sailaren koadernoak

Gizarte Inklusioa bilduma

Nº

2



Sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktimen eta hortik bizirik irtendakoen diagnostikoa eta haiekin lan egiteko esku-hartze sozialeko plana





Aurreko martxoaren 12an Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak sexu esplotaziorako helburuak dituen salerosketaren biktimekiko esku-hartze sozialeko foru plana (2019-2021) onartu du. Plana jarraian ageri da erantsita.

Goazen 2030 Plan Estrategikoak bere 2. ardatzean (gizarte eta lurralde kohesioa eta aukera berdintasuna dituen Bizkaiari buruzkoa) honako helburu zehatza jasotzen du: giza eskubideen urraketarik handienaren biktimak izandakoekin esku hartzeko plana prestatzea, hain zuzen ere. Eta hori Goazen 2030 Dokumentuan jasotzen dugu, Bizkaiko herritarrekiko konpromisozko agiri estrategikoa delako eta behar-beharrezkoa zelako emakume biktimekin esku-hartze profesionalizatuko plan bat ezartzea.

Zentzu horretan, zuzentzen dudan Saila oso kezkatu azaldu da aurreko legegintzaldi osoan, lehentasunezko honako helburu hau lortu nahian: generoen arteko berdintasunera bideratutako estrategiak, programak eta ekintzak gauzatzea, emakumeen kontrako indarkeria molde guztiak eta emakumeen esplotazioa desagerraraztea eta emakumeei eta haien seme-alabei laguntzea indarkeria mota horri aurre egin diezaioten.

Gizakien salerosketa indarkeria matxistaren modalitate lazgarria da eta giza eskubideen urraketa ezin larriago eragiten du.

Gizakien salerosketa errealitate ukaezina da. Giza eskubideen kontrako atentatu lazgarria eragiten duen errealitatea. Sexu esplotazioa xede duen gizaki salerosketa desberdintasunik handiena da, emakumeen kontrako indarkeriaren alderik bortitzena, alegia.

Munduan irabazirik gehien sorrarazten duen ez-legezko hirugarren negozioari buruz ari gara hizketan, droga eta arma trafikoen ondoren; haren arrazoi eta oinarriak XXI. mendean emakumeek oraindik ere pairatu beharreko desberdintasunen daude. OITek kalkulatu du haren etekinak urtean 32.000 milioi dolarrekoak direla. Eta desberdintasunaz mintzo garenean,

gogora ekarri behar dugu herrialde askotan oraindik ere emakume eta gizonen arteko berdintasun juridikoa ez dela errealitate sendo bat. Herrialde horietan prekarietate eta pobrezia feminizazioak irabazizko helburuak dituen esplotazioa, abusua eta emakumeen salerosketa aldeztu ditu.

Beraz, behartutako sexu esplotazioaren helburuak dituen emakume salerosketaren arazoa desberdintasun auzia da, hala jatorrian nola ondorioetan. Ondorio lazgarriak ekartzen dizkie emakume biktimei eta hortik bizirik atera direnei, pertsonen duintasunaren kontrako atentaturik handiena delako, eta, halaber, emakumeen ikusezintasuna eragiten duelako biktima indibidual eta kolektibo gisa.

Eta ezin dugu begirik itxi. Urteetan zehar emakumeen salerosketa gertakari ikusezina izan da eta gaur egun oraindik ere lan egin behar dugu pertsonen eta, bereziki, emakumeen askatasunen eta duintasunaren kontra bete-betean jotzen duen nazioarteko, nazioko eta tokian tokiko errealitate hau agerian jartzeko.

Nekeza arazoari heltzea. Gaur egun erakundeen konpromisoa ezinbestekoa da sexu esplotazioaren xedeak dituen pertsona trafikoa eta salerosketa desagerrarazteko helburua agenda publikoan ager dadin, bai eta garapen mailarik handiena duten herrialdeetako gobernuen agenda publikoan ere. Mendebaldeko demokraziak ezin dira bizi gizakiaren esplotaziorik handienetarikoa truke irabaziak bilatzen dituzten jardun mafiosoek bizkar emanda.

Zehatzago, genero indarkeriaren kontrako itunak dagoeneko jasotzen du sexu esplotaziorako salerosketaren emakume biktimei auzia, eta, era berean, sexu esplotaziorako helburuak dituen salerosketari aurre egiteko lege oso baten premia ere ezartzen du. Gainera, estatu itunaren neurrien artean, Espainian salerosketaren egoera hobeto ezagutzeko aurreratzen jarraitzeko premia azpimarratzen da inplikaturako administrazioen lankidetzaren bidez, betiere emakumeen kontrako indarkeria mota honen informazio estatistikoa zabalagoa izan dadin eta errealitate honen ezagutza egokia ahalbidetzeko ikerlanak eta azterlanak susta daitezkeen, bidenabar aurrera eraman beharreko jarduketan hobekuntza bultzatuz.

Hori guztia garatzen den bitartean, Bizkaiko administrazioak ez du zain egon behar, esku hartzeko eskumenak dituelako, jarduteko muga handi-handiak izan arren.

Hala ere, ezin dugu jardun burura etorritako lehendabiziko burutazioa erabiliz. Emakumeen salerosketari ezin zaio aurre egin burutazioak erabiliz, baizik eta hausnarketa, planifikazioa, programak eta baliabideak abian jarri.

Eta horrexegatik prestatu da plan hau, behin alde aurretiko diagnostikoa eginda eta esku hartzen duten erakunde guztien eta Foru Aldundiko pertsonal teknikoaren hausnarketa izanda. Kontua da biktimekiko eta haien familiekiko esku-hartze zuzena aldeztu duen gogoeta eta jarduketa teknikoak jasotzea. Izan ere, gure eskumenen markoaren barruan, helburua da erosketaren biktimak izandako emakumeen bizimodua eraldatzen laguntzea. Eta jakina, haien seme-alabena ere bai.

Zuek dakizuen bezala, indarkeria gauzatzen da muturreko ahulezia kinka larrian dauden pertsonak bereganatuz, garraiatuz edo harrera emanez, eta hori indarrez egiten da, mehatxua, jazarpena, engainua edo biktimaren ahultasunaren aprobeitxamendua erabiliz, pertsona hori esplotazioaren pean jartzeko.

Bizkaiari dagokionez, gure estrategia herrialdeko molderik ohikoenera bideratu dugu; izan ere, sexu esplotazioa modalitate lazgarria izan arren, biktimekin (gehienbat emakumeak eta neskatilak) trafikatzten duten erakundeentzako bide oparoenatariko bat da, betiere gizonen botere jarreraren aldean genero arrazoiengatik pairatu beharreko desberdintasun, diskriminazio eta menpekotasun egoeraz baliatuta.

Gure garaiko esklabotzatzat jotzen den fenomeno hain zabala izan arren, errealitate konplexua, ikusezina eta nahiko ezezaguna da, eta polizia ikerketa gogorren bidez edo egunero errealitate horretara hurbiltzen diren gizarte erakundeen bidez baino ez da iristen.

Hasierako datu batzuk

Argi dago oso gai konplexu eta ikusezin bati egin behar diogula aurre, non eman daitekeen datu oro errore eta kontraste gutxiko marjina izugarriei lotuta dagoen.

Prostituzio behartua helburu duten salerosketen kasuetan, biktima ikusezina aurkitzen ditugu. Dauden txostenak, askotan, ez dira oso fidagarriak ... kasuen % 5 bakarrik detektatzen direla uste da, Arartekoak 2011n adierazi zuenez. Ikusezintasun sozial bat, gizartea behartzen duena behatzen ikastera, atzemandakoari begiratzeraz eta esku hartzeraz.

2014an 1.428 kasu identifikatu ziren Espainia osoan, baina badirudi oso kopuru gogorrari aurre egin behar diogula.

Hala ere, prostituzio behartua helburu duten emakumeak 40.000 inguru izan daitezke. Pertsonen salerosketaren aurkako Espainiako Sarearen arabera, 40.000 eta 50.000 emakume artean sexualki esplotatzen dituzte Espainian. Beraz, gutxienez 40.000 emakumeri buruz hitz egiten dugu esklabutza handiena sufritzen, eta horiei buruz ez dakigu dena eta batez ere ez dakigu zein den haien sufrimendua. Kalkuluen arabera, Europan 140.000 emakume daude.

Euskadin, behartutako prostituzio horren biktimak Saharaz hegoaldeko Afrikatik etorritako emakume eta neska atzerritarrak dira nagusiki, baina Ekialdeko herrialdeetako emakumeen presentzia ere nabarmendu behar da. Batez besteko adina 23 eta 27 urte bitartekoa da, baina adingabeen presentzia gero eta handiagoa dela ohartarazten da. Detekzioetan oinarrituta, Saharaz hegoaldeko Afrikatik, ekialdeko Europatik, Erdialdeko Amerikatik eta Hego Amerikatik datozela esan daiteke. Azken urteotan, Nigeriako emakumeen presentzia handiagoa antzeman da Euskadin; hala ere, Gurutze Gorria eta Oblatas bezalako iturriek adierazi dute azkenaldian Boli Kostakoak, Ginea Conakrikoak eta Kamerunekoak agertzen direla. Are gehiago, jatorri latinoamerikarreko emakumeen presentziaz ohartarazi gaituzte: Nikaragua, Kolonia eta Venezuela.

Jatorrizko herrialdeko prekarietateak eta pobreziaren feminizazioak bereziki ahul bihurtzen ditu. Nazioarteko GKEen abisuak izan dira dagoeneko, eta ohartarazi dute errefuxiatuen eta desplazatuen kopuruak gora egin ahala tratulariek negozioa egiteko aukera ikusten dutela, salgaiak balira bezala.

Sareei dagokienez, kide gutxik osatzen dituzte, eta haien senideak ere izan daitezke. Iruditeria kolektibotik kendu behar da etxean edo gela zikinetan preso dauden emakumeen irudia, abisua eman ezinda, hori baita errealitate rik gogorrena. Pentsatu behar da badirela ere, libre izan gabe, gutariko baten ondoan erosketak egiten egon daitezkeenak.

Hainbat modutan jarduten dute: engainatzeko edo erakartzeko modu desberdinak, zorraren kantitatea (6.000 €-tik 60.000 €-ra), herrialdera sartzeko bideak, ustiatzen diren lekuak (kalea, pisuak eta/edo klubak) eta prostituzioan (indarkeria fisiko, psikologiko, sexual, ekonomiko eta erlijiosoaren bidez) behartzeko teknikak. Sexu esplotaziorako pertsonen salerosketa ez

da Prostituzioa, ez da immigrazio irregularra, askatasunen eta giza eskubi-
deen urraketa da. Eta beraz, delinkuentzia antolatua suposatzen duena-
ren aurka esku hartu behar da, sareen aldetik, baina baita biktimekiko eta
haien seme-alabekiko esku-hartze zuzenaren aldetik ere.

Bizkaian esku hartzeko PLANA gauzatzea

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Foru Aldundiaren
Saila jakitun da botere publikoek sexu esplotaziorako salerosketaren pre-
bentzioari dagokionez dituzten betebeharez, bai eta biktimen giza eskubi-
deak bermatzeko erantzukizunez ere; hori dela eta, aurkezten dizuegun
planaren bidez, gure eskumeneko araudiekin bat egiten dugu:

- Nazioarteko arau esparrua, Europako araudia eta nazioarteko estandarrak (CEDAW erakundearen 6. artikulua, Varsoviako Hitzarmena (2005) eta Is-
tanbulgo Hitzarmena (2011), eta, bereziki, gizakien salerosketaren aurkako
prebentzioari eta borrokari eta biktimak babesteari buruzko Parlamentua-
ren eta Kontseiluaren 2011ko apirilaren 5eko 2011/36/EB Zuzentaraua).
- Emakumearen aurkako indarkeria desagerrarazteko estrategia nazionala
(2013-2016), Ministro Kontseiluak 2013ko uztailearen 26an onartua.
- Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Ituna, Diputatuen Kongresuak
2017ko irailaren 28an onartua.
- Genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko
abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 3. artikuluan xedatutakoa.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren 4/2005
Legearen 50. artikulua eta hurrengoak, emakumeen aurkako indarkeriaren
kontzeptua eta prebentzio, arreta eta laguntza jarduerak eta neurriak ga-
ratzen dituena.
- Eta oso modu esanguratsuan Bizkaian, Berdintasunari buruzko Foru
Araua, emakumeen aurkako indarkeria mota guztien aurka borrokatzeko
ezinbesteko konpromisoa jasotzen duena.

Foru esparruak, bere lurraldearen barruan, erakunde erkideen legeria be-
tearazteko eskumenak ditu, Gizarte Zerbitzuen arloan; era berean, Emaku-
meen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, besteak
beste, foru aldundien esku uzten ditu programak edo zerbitzuak emateko
eskumenak, bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeen oinarritzko

gizarte eskubideetarako sarbidea bermatze aldera, baldin eta zerbitzuok udalaz gaindiko izaera badute (6. artikulua, i letra). Eskumen hori bera ematen zaio Bizkaiko Foru Aldundiari Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 5. artikuluko i) letran.

Plana prestatzeko lana

Plana prestatzeko lana honela gauzatu da:

Nire hitzaldiaren hasieran esaten nizuen bezala, legealdiaren hastapenetan, Bizkaiko Foru Aldundiaren Goazen 2030 estrategiaren barruan sartu genituen arlo horretako zeregin estrategikoak. Zehazki, 2. ardatz estrategikoan jasotzen du Bizkaiak berdintasuna lortzeko duen helburua; gai horri lotuta bi konpromiso ageri dira:

1. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren baliabideak erabiltzea, betiere errealitate horri aurre egiteko eta sufritzen duten pertsonen duintasunezko bizimodua lortzen laguntzeko.
2. Bizkaian salerosketaren biktimekin esku hartzeko plana egitea.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren bidez egin genuen lehenengo gauza salerosketaren fenomenora hurbiltzeko azterlana enkargatzea izan zen -jada aipatu dut Bizkailab-. Bere helburuak: beharrezko eta atariko helburuak iruditzen zitzaizkigun hizkuntzak eta kontzeptuak bateratzea, fenomenoaren azterketa ulerkorra egitea, administrazio bakoitzaren eskumenak zehaztea, aintzatetsitako erreferentziak eta egiten ari ziren abordatzeak ezagutzea, lanean nortzuk ari ziren jakite, gaiaren inguruko sarea osatzea eta Aldundia bera dokumentatzen hastea.

2016ko maiatzetik urte horren amaierara bitartean, mintegi bat egin genuen (bi lanalditan banatuta), hainbat erakunde eta entitateren iritzia eta ekarpenak jasotzeko, Bizkaiko salerosketaren biktime diren emakumeekin esku hartzeko etorkizuneko gizarte plana hobetze aldera. Mintegi horretan izan ziren Botere Judizialeko eta Fiskaltzako ordezkariak, Segurtasun Indar eta Kidegoak, Emakunde eta Eusko Jaurlaritzza, Aldundiko teknikariak eta gizarte erakundeak eta euskal esparru akademikoa. Mintegiak salerosketaren alorreko aditu ospetsuen laguntza izan zuen, eta plana abiarazteko motorra izatea ahalbidetu zuen.

2018ko udan aurkeztu zen “sexu esplotaziorako salerosketaren biktimekin eta biziraun dutenekin esku hartzeko plan soziala” izenekoaren lehen zirri-

borroa, eta ordutik ekarpenak, alegazioak eta kontrasteak egin dira gizarte erakundeekin, eragileekin eta erakundeekin, eta, azkenik, Saileko talde teknikoek berrikusi dute. Beraz, plana inplikaturako erakundeekin eta eragileekin batera egin da.

Planak bi zati desberdin ditu. Bat, esku hartzen duten eragileek Bizkaian gaur egun duten egoeraren diagnosiari buruzkoa, bizirik dirautenekin esku-hartze zuzena duten erakunde eta administrazio guztiei hitza ematen diena. Diagnostikoaren zatian, egin zen mintegiaren inguruko iritziak eta proposamenak eta gogoetak jasotzen dira. Eta bigarren zati bat, non jada planteatzen diren lanerako helburu eta ardatz zehatzak, baita gauzatu beharreko ildoak eta ekintzak ere.

Sexu esplotaziora bideratutako salerosketaren biktimekin eta biziraun dutenekin Gizartean Esku Hartzeko Planaren esparruan zer eskumen hartzen ditugun zehaztu aurretik, bi gogoeta adierazi nahi nituzke:

1. Lehenak jakinarazten du Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko zuzendaritza guztiek batera aurkeztu dutela plan hau. Ezin zitekeen bestela izan, eta foru diputatu gisa hasi nintzenetik azaldu dudan bezala, berdintasun politikei hain atxikia zaien zeharkakotasunaren kontzeptua ezin da falta mahai honetara ekartzen dugun plan honetan. Ezin dugu planteatu krimen hau errotik kentzea eta konpontzea arlo desberdinen arteko lankidetzaren esturik gabe, arlo horietako bakoitzaren zereginetatik eta jakintzatik abiatuta; eta zer hobe zuzentzeko ohorea dudan hiru arloetatik egitea baino. Ez da bakarrik gizarteratzea, berdintasuna edo enplegua eta prestakuntza bakarrik. Arazoari heltzeko, arlo guztietatik begiratu eta aztertu behar da.

2. Bigarren gogoetak berdintasunaren arloaren helburu nagusira garamatza: Bizkaian emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko, arreta jarri behar da, lehentasunez, abiapuntuko desabantaila argia duten emakumeengan. Hori dela eta, ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, ez zuen ikuspegi hori galdu nahi izan: emakume batzuek aurre egiten dieten diskriminazio anitzena, batzuetan duten zaurgarritasun egoera bereziarena, batzuetan zapaltzen dituen indarkeriarena. Eta interseksionalitatearen printzipioa ezarri genuen Foru Arauaren printzipio orokor gisa.

Dakizuenez, interseksionalitateak mantentzen du bazterketa modu kla-

sikoak (arrazakeria, sexismoa, homofobia, transfobia, xenofobia eta abar) elkarri lotuta daudela, diskriminazio modu anitzten elkargunea islatzen duen sistema sortuz. Plan honetan printzipio hau jorratzen da, abiaburu gidarieratariko bat da: Bazterkeria faktore ugari larriagotzen duten zaurgarritasun egoera larrian dauden emakumeen aurkako desberdintasun, diskriminazio, zapalkuntza eta indarkeria egoerei heltzen diegu.

Bi ohar horiek egin ondoren, Plana aurkeztuko dut labur-labur:

I. Planak Palermoko Protokoloaren definizioari heltzen dio, sexu esplotaziora bideratutako pertsonen salerosketaren definizioak hartzeko.

II. Aldez aurreko salaketak ez du baldintzatuko emakumeei eta haien seme-alabei arreta ematea; nahikoa izango dira esku hartzeko protokoloek ezarritako salerosketaren biktimia izatearen zantzu ziurrak.

III. Plan hori Foru Aldundiari dagokion eskumen esparruaren barruan dago, eta bost ardatz egituratzailetan oinarritzen da:

1. ardatza.- Artapen integrala
2. ardatza.- Prestakuntza
3. ardatza.- Prebentzio eta sentsibilizazioa
4. ardatza.- Koordinazioa – sareko lana
5. ardatza.- Ikerketa eta ezagutzaren hobekuntza

Ardatz bakoitzean, helburu desberdinak planteatzen ditugu; guztira, 11 helburu eta 38 neurri eta jarduera, helburuen arabera banatuta. Planak neurri bakoitzaren aldizkakotasunaren, planaren betetze maila neurtzeko garatu beharreko adierazleen eta neurri bakoitza gauzatzeko Aldundiaren organo arduradunaren berri ematen du.

Planak, azken batean, honako xede hauek ditu:

1. **Arreta integrala bermatzea sexu esplotaziorako salerosketaren biktimia edo biktimia izan daitezkeen pertsona guztiei eta haien seme-alabei, jakina, gure eskumenean barruan.**

2. **Ahal den neurrian, salerosketa justifikatzeraz edo ikusezin bihurtzeraz bideratutako diskriminazio egoera guztiak prebenitzea, bai biziraun dutenei dagokienez bai genero-harremanen eraldaketari dagokienez, sexu-esplota-**

zioaren eskaria murrizteko oinarri gisa.

Horretarako, salerosketaren biktimek dituzten behar guztiei erantzuteko jarduerak antolatzen dira.

Arreta espezializatuko eta integraleko ibilbide bat sortuko da salerosketaren biktima diren emakumeen eta haien seme-alaben etxebizitza eta mantenu premiei eta eremu komunitarioko behar psikosozial, sozio-juridiko eta erlaziozkoei erantzuteko; halaber, prestakuntza eta gizarteratze eta laneratze alderdiak ere jorratuko dira, estrategiko irizten diegun heinean. Hori guztia sufritutako biktimizazioa gainditzeko eta gizarteratze aktiboa lortzeko, bizikidetzeta eta gizarteratzea bultzatuz. Eta jasandako egoeraren alternatiba bat eskainiz, autonomia eta ahalduntzea indartuz eta erabakiak hartzen lagunduz.

Garrantzitsua da, planean jasotzen den bezala, jarduteko eta bideratzeko protokoloak ezartzea beste arreta baliabide batzuekin, arretaren trazabilitatea bermatzeko, salerosketaren biktimek eta haien seme-alabek prozesuaren fase guztietan duten abagune eta premiara egokitzeko.

Arreta integrala eskaintzeko eta baliabideak optimizatzen saiatzeko, ezinbestekoa da – 4. Planeko ardatzean jasotzen den bezala– gizarte eragileen arteko koordinazioa eta sareko lana. Eskaera hori sarri errepikatzen da plan bereko egoeraren diagnostikoan.

Horretarako, koordinazio eta partaidetza espazioak sortzea aurreikusten da, hainbat eremutatik esku-hartzeak eta jarduerak definitzeko eta indarrak batzeko, planean zehar definitutako ekintzak lortze aldera. Arreta berezia jarriz salerosketaren biktima izan diren adingabeei, Bizkaiko Foru Aldundiko Haurtzaro Zerbitzuarekin koordinatzen eta bideratzen laguntzeko.

Era berean, koordinazio eta komunikazio mekanismoak ezarriko dira Estatu Segurutasun Indar eta Kidegoekin, Gobernuaren Ordezkariordeztarekin, kontsulatuekin eta gai horretan eskumena duten gainerako erakundeekin, inplikaturako hainbat eremu baitaude.

Era berean, etengabe koordinatuko da Emakunderekin eta EAEko aldundiekin, lurralde-oreka lortzeko, arazo horri aurre egin nahian. Horretarako, behar izanez gero, beharrezko baliabideak inplementatuko dira.

Garrantzitsua da arlo honetan esku hartzen duten gizarte erakundeek eta

administrazio publiko eskudunek adostutako adierazle komunak izatea salerosketaren biktima posibleak detektatzeko, 5. ardatzean (lkerketa eta ezagutzaren hobekuntza) jasotzen den bezala.

Gure ustez, helburu horiek lortzeko ezinbestekoa da esku hartzeko taldeek informazioa eta prestakuntza egokia izatea, 2. ardatzean (prestakuntza) jasotzen den bezala. Hori dela eta, salerosketaren biktimei arreta eman aurretik, prestakuntza jarduera zehatzak eratzen dira salerosketaren biktimak diren emakumeak eta haien seme-alabak informatu eta artatuko dituzten Emakume eta Familia Esku Hartzeko Zerbitzuaren bidez eta parte hartu beharreko bestelako erakundeen bidez (hala nola Tartekari Sarea, Arreta Psikologikoko Zerbitzua, Arreta Soziojuridikoko Zerbitzua, enplegu-zerbitzuak eta abar).

Azkenik, berariazko atal bat sartu nahi da, urteko informazioarekin, Bizkai-ko Foru Aldundiaren Indarkeria Matxistaren Behatokiaren barruan, sexu esplotaziorako salerosketaren biktimen arretari eta kasuei buruzko datu eta txosten egokiak biltzen dituen. Datuen azterketa horrek arazo hori ezagutzea erraztuko du, eta hartu beharreko neurriak eta esku-hartzeak bideratuko ditu

Eremu horren barruan, egokia iruditzen zait adieraztea 2019ko ekitaldi honetan dagoeneko hasi dela Plana eta zenbait ekintza bideratu direla, hala nola teknikarien prestakuntza espezifikoa eta laguntza-intentsitate ertaina edo handia behar duten emakumeentzako egoitza arretako 6 plazen hedapena, behar den oneratzeko-aldia gainditu ondoren. 2019ko aurrekontuak eremu horretarako jasotako kopurua 185.000 eurokoa da.

Era berean, salerosketa justifikatzaera edo ikusezin bihurtza bideratutako diskriminazio egoera guztiak prebenitzeko bigarren helburu nagusiari dagokionez, xede-populazioa Bizkaiko herritarrak dira oro har, eta Planean jasotzen dira biktimen detekzioa eta identifikazioa errazteko prestakuntzak, ez bakarrik gure Aldundiko unitateei dagokienez, baita Bizkaian Foru Aldundiaren programen inguruan lan egiten duten eragileei, hezkuntzako profesionalei (formala eta ez-formala) eta abarri dagokienez ere.

Herritarrei zuzendutako sentsibilizazio kanpainak egitea ere jasotzen da. Hainbat sentsibilizazio jarduera lantzen ditugu hemen, kanpainen, hitzaldien eta mintegien bidez eta baliabide didaktikoak landu eta erabiliz. Kanpaina horietan, biztanlerian oro har duen eraginaz gain, arreta berezia

jartzen dugu tratatutako emakumeen bezero izan daitezkeen gizonengan.

Eta, azkenik, komunikabideei zuzendutako gida bat egitea eta zabaltzea proposatzen da (prestakuntza saioen bidez), genero ikuspegitik prostituzioari eta sexu esplotaziorako tratamenduari buruzko berriak tratatzeko gomendioekin. Gure ustez, komunikabideak funtsezko eragilea dira informatzeko, iritzia sortzeko eta sensibilizatzeko. Horregatik, bereziki kontuan hartzen ditugu plan honetan.

Gazteengan ere jarri nahi izan dugu arreta. Nerabe eta gazteen kasuan, helburua berdintasunezko harremanak eta sexualitate arduratsua sustatzea da. Horretarako, ikastetxeekin, guraso elkarteekin, gazte elkarteekin eta abarrekin ere lan egingo dugu. Zuzendaritzak gai horri ekin dio hainbat programarekin, baina, plana dela eta, erlazio espezifikoak jorratuko dugu sexu esplotaziorako salerosketaren inguruan.

Azkenik, eta gure Zuzendaritzak garapenerako lankidetzaren arloan dituen eskumenak kontuan hartuta, gizarte eraldaketarako hezkuntza proiektuetan salerosketari lotutako ildo bat irekiko dugu, gure dirulaguntzen dekretuaren esparruan.

Planak garrantzi handia ematen dio koordinazioari, sareko lanari. Ezin bestela izan. Administrazioen artean partekatutako eskumenak, pertsona gutxi kezkatzen dituen krimen baten ikusezintasuna, hirugarren sektoreko erakunde oso inplikatuak baina bakardade handiegian borrokatzen direnak. Emakumeak eta haien seme-alabak esku-hartzeen erdigunean jartzeak koordinazio gorena eskatzen digu.

Ikusten duzuen bezala, salerosketari buruzko plana egitasmo xumea eta handinahia da, baina gure eskumenen gainean eta zapaltzen dugun lurraren gainean finkatua. Guztiz jabetzen gara abordatzearen konplexutasunaz, baina, era berean, begirada errealitatearen gainean jartzeak eta bizirik dirautenak ikusarazteak haien gainean jarduteko aukera ematen digute. Zereginaren konplexutasuna ezin da aitzakia izan ekintzarik ez egiteko, eta koordinaziorako zailtasunak ere ezin dira aitzakia izan, eskumenak oso banatuta baitaude esku hartzen duten eragileen artean.

Gaur egungo salerosketa hobeto ulertzearen alde egin nahi dugu, lotutako zaurgarritasunak hobeto ulertzearen alde. Prebentzio mekanismoak eta kaltetutako pertsonen babeserako, sorospenerako eta laguntzarako baliabideak berrikusi behar dira, bi enfasirekin: genero ikuspegia eta haurtzaro

ikuspegia.

Ondo azpimarratu nahi dut: estrategia partekatu bat nahi dugu, ekintzak, politikak, inbertsioak eta esku-hartzeak batuko dituena. Batuketan egongo da gure arrakasta, biktima horien babesa besterik ez dena.

2019ko uztaila.

Teresa Laespada Martínez

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta berdintasuna Sustatzeko foru diputatua
Bizkaiko Foru Aldundia

1.	AURKEZPENA	23
2.	TESTUINGURUA:.....	27
2.1.	Esparru arautzaileak	30
2.2.	Bizkaiari artatutako emakumeen profila.....	32
3.	SEXU-ESPLOTAZIORAKO GIZAKIEN SALEROSKETAREN BIKTIMEKIN ETA HORTIK BIZIRIK IRTENDAKOEKIN EGITEN DEN ESKU-HARTZE SOZIALAREN ERREALITATEAREN DIAGNOSTIKOA.	39
3.1.	Gizakien salerosketaren biktimekiko begirada birdefinitzea	40
3.2.	Lege-arloko hutsuneak.....	42
3.3.	Jarduteko euskal protokoloaren mugaketak.....	43
3.4.	Sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktimei eta haien seme-alabei zuzenduriko zerbitzuen eta baliabideen gabezia.....	47
3.5.	Eskumenen banaketa argia eta sareko lana.....	54
3.6.	Profesionalei ematen zaien laguntza eta haien zaintza	57
4.	BALIABIDEEN GIDA	63
5.	GAIA: SEXU USTIAPENA HELBURU DUEN SALEROSKETAREN BIKTIMEN ETA BIZIRAULEEN ALDEKO ESKU-HARTZE SOZIALERAKO BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN PLANA (2019-2021) ONESTEA.....	69
6.	GIZARTEAN ESKU HARTZEKO PLANA SEXU-ESPLOTAZIORAKO PERTSONEN SALEROSKETAREN BIKTIMEKIN ETA HORRETATIK BIZIRIK IRTEN DIRENEKIN (2019-2021).....	75
7.	ERANSKINA	79

AURKEZPENA¹

2017an, Bizkaiko Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak bi mintegi egin zituen administrazio publikoen, gizarte zibilaren eta mundu akademikoaren artean, Bizkaian gizakien salerosketa prebenitzeko eta haren aurka jarduteari begirako esku-hartze sozialeko estrategia bat sortzeko xedez.

Bada, sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktimekin lan egiteko esku-hartze sozialeko plan batekin amaitzea zen mintegien asmoa (beti ere, giza eskubideen ikuspegitik abiatuta), biktimak gehiago eta hobeto babestea, hartzea eta laguntzea sustatze eta tartean diren entitateen eta erakundeen koordinazioa hobetze aldera.

Deustuko Unibertsitateko Psikologia Fakultateko irakasleek² eta ikertzaileek koordinatu dute lana, eta, Bizkaiko Foru Aldundiaren mendeko Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuak ez ezik, gizakien salerosketa prebenitzeko eta salerosketaren biktimei arreta emateko arloan lan egiten duten zazpi gizarte-entitatek ere parte hartu dute lana egiteko orduan (Askabide, Ahizpa Oblatuak, Gurutze Gorria, CEAR Euskadi, Hiesaren Aurkako Batzordea, Save the Children Euskadi eta Munduko Medikuek). Hala, diagnostikoa nahiz esku-hartze sozialeko plana egiteko elkarrizketetan parte hartu dute, eta zirriborroa kontrastatzeko bilerak egin dira gizarte-entitateekin eta Bizkaiko Foru Aldundiaren mendeko Gi-

1: Dokumentu honetako edukiak Deustuko Unibertsitateak Bizkaiko Foru Aldundiaren enkarguz egindako lan honetatik jasota daude:

GANDARIAS, I.; URRUTIKOETXEA O.; NAVARRO, M.A.; FERNÁNDEZ DE LARRINOVA, P. (2018): "Plan de intervención social con víctimas y supervivientes de trata con fines de explotación sexual"

2: Deustuko Unibertsitateko Psikologia eta Hezkuntza Fakultateko Itziar Gandarias irakasleak, Oihane Urrutikoetxea ikertzaileak eta Miguel Angel Navarro eta Pedro Fernandez de Larrinova irakasleek egin dute lana.

zarteratzea Sustatzeko Zuzendaritzarekin.

Dokumentuak bi zati dauzka. Lehenengo zatian, gizarte-entitateek sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktimei arreta emateko orduan dauzkaten premiak, hutsuneak eta zailtasunak biltzen dituen diagnostikoa jasotzen da, eta, diagnostiko horretatik abiatuta, bost ekintza-arlo hauen bidez ekiteko jarduketa-plana aurkezten da bigarren zatian: (1) Arreta integrala, (2) Prestakuntza, (3) Sentsibilizazioa eta prebentzioa, (4) Koordinazioa eta sareko lana eta (5) Ikerketa eta ezagutzaren hobekuntza. Arlo bakoitzean, datozen hiru urteetarako ekintzak, ebaluazio-adierazleak eta egutegiak biltzen dira. Azkenik, Bizkaiko lurralde historikoan sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktimei arreta ematen dieten baliabideen gida xehea jasotzen da.

TESTUINGURUA

Sexu-esplotaziorako gizakien salerosketa ez da fenomeno berria. Errealitate historiko bat da, emakumeek munduan bizi duten desberdinkeriazko egoeraren eta haien kontra ezartzen den indarkeriaren muturreko adierazpena, ikusezin egin duten eguneroko adierazpena. Emakumeen gorputzaren merkantilizazioaren adierazpenik larriena da.

Emakumeen aurkako Diskriminazio Mota Guztiak Deuseztatzeko Hitzarremenaren gomendioetan (1979), Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1993an sinatutako Emakumeen kontrako Indarkeria Deuseztatzeko Itunean eta Beijing-eko Ekintza Plataforman (1995), gizakien salerosketa indarkeria mota bat dela aitortzen da. Horiekin bat eginez, honako hau baieztatzeko: jatorrizko nahiz helmugako gizarteetan gizonen eta emakumeen artean dagoen desberdinkeria adierazpen eta ondorioetako bat da delitu hau.

Nazio Batuek batez ere Emakumeen eta Haurren Salerosketa Prebenitzeko, Deuseztatzeko eta Zigortzeko Protokoloa eman zuen, zeina Palermo Protokoloa izenez den ezaguna eta Espainiako Estatuak 2003an berretsi zuen, eta, bertan, honela definitzen da pertsonen salerosketa: «Pertsonak atzematea, garraiatzea, hartzea edo jasotzea da, mehatxu egiten bada, indarra edo derrigortzeko beste moduren bat erabiltzen bada, bahitu egiten bada, iruzur egiten bada, engainatu egiten bada, boterea gehiegikeriaz erabiltzen bada, zaurgarritasun-egoeraz baliatzen bada edo beste baten gainean agintea duen pertsona baten baimena lortzeko ordainketak egin edo etekinak ateratzen badira, esplotazio-xedez. Esplotazioak bere baitan hartzen ditu, gutxienez, prostituzioaren eta bestelako sexu-esplotazioaren ondoriozkoak, behartutako lanak edo zerbitzuak, esklabotasuna edo antzeko jarduerak, morrontza eta organo-erazketa». Gizakien salerosketaren kasuan, biktimaren onespenez ez du garrant-

zirik, mehatxua, engainua, indarra edo hertsatzeko bestelako moduak erabiltzen baitira, esplotazio-xedez.

Bada, gizakien salerosketaren definizio hori funtsezko hiru elementutan banakatu daiteke. Kontuan hartu elementu bakarrarekin ere (hau da, ekintza, bitarteko edo xede batekin) delitutzat hartzen dela, baita xedea lortu ez arren ere, aurretik burututako delitua baita.

- **Ekintzak:** Pertsonak atzematea, garraiatzea, ontziratzea edo hartzea da.

- **Erabilitako bitartekoak:** Mehatxua, indarra, engainua, botere-gehiegieria, zaugarritasuna, aurretik biktimaren gainean kontrola duen norbaiti ordaintzea.

- **Xedea:** Helburua esplotatzea da, bai sexualki, bai behartutako lanen, esklabotasunaren eta antzeko jardueren edo organo-erazketaren bidez.

Garrantzitsua da gizakien salerosketa eta pertsonen trafiko bidegabea ez nahastea. Hona hemen Nazio Batuen definizioa: «Pertsonen trafiko bidegabearekin, etekin ekonomikoa lortu nahi da, zuzenean edo zeharka, pertsona bat herrialde batera legez kanpo sartuta, baldin eta pertsona hori herrialde horretakoa ez bada edo bertan iraunkortasunez bizi ez bada».

Honako alderdi hauekin bereiz ditzakegu bi fenomenoak:

- **Onespena:** Pertsonen trafiko bidegabean, askotan baldintza iraingarri edo arriskutsuetan egiten den arren, pertsona horiek onartu egiten dute beren burua trafikatzailen sarearen esku jartzea. Gizakien salerosketan ez da inoiz onespenerik egoten, eta, hasiera batean onespenera eman bada, indarkeriaren, engainuaren edo abusuaren bidez lortu da.

- **Esplotazioa:** Trafiko bidegabea trafikatuak helmugara iristen direnean amaitzen da. Gizakien salerosketan, ordea, biktimak ondoren ere esplotatzen dira, etekin ekonomikoak eskuratzeko asmoz. Era berean, aintzat hartu behar da aurretiaz burututako delitua denez esplotazio-fasea ez dela beti gertatzen (adibidez, garaiz jarduten denean edo biktimak ihes egitea lortzen duenean) baina berdin-berdin jotzen dela delitutzat.

- **Transnazionaltasuna:** Legez kanpoko immigrazioa beti da transnaziionala; gizakien salerosketa, ordea, herrialde bereko eremu ezberdinen artean jazo daiteke.

Palermo Protokoloan gizakien salerosketari egiten zaion definizioan agerian jartzen denez, giza eskubideen urraketa larria da, eta agenda politikora sartu behar da gizakien salerosketaren kontrako borroka. Gainera, gobernuek gizakien salerosketari aurre egiteko orduan duten erantzukizuna azpimarratzen du (prebentzioa, babesa, laguntza eta biktimen erreparazioa).

Droga-trafikoaren ondoren, gizakien salerosketa da diru-irabazi gehien ematen duen negozio bidegabea munduan. Lanaren Nazioarteko Erakundeak 32.000 milioi dolarretan kokatzen ditu irabaziak urtean.

Gaur egun, sexu-esplotaziorako emakumeen eta adingabeen salerosketa gora doan errealitatea da. Kalkuluen arabera, Espainiako Estatuan 13.879 eta 40.000 emakume artean esplotatzen dira sexualki, eta, Nazio Batuen Erakundearen esanetan, Espainiako Estatuak da salerosketa-sareen helmuga- eta igarotze-herrialde nagusietako bat. Gizakien Salerosketaren aurkako Espainiako Sareak balioesten duenez, berriz, Espainian 40.000 eta 50.000 emakume artean esplotatzen dira sexualki. Europar zenbaki hori 140.000ra iristen dela uste da.

Gehienak emakume gazteak dira, 23 eta 27 urte artekoak, baina polizia-iturriek eta gizarte-eragileek gero eta adingabe gehiago esplotatzen direla ohartarazten dute. Azken urteotan, gizakien salerosketaren biktima direlako zantzuak dauzkaten emakume nigeriar gehiago daudela hauteman da Euskadin, eta, antolakunde batzuek (CEAR Euskadi, 2017) baieztatzen dutenaren arabera, Euskadi banaketa-zentro bihurtu da sexu-esplotaziorako emakume nigeriarrak salerosten dituzten mafientzat. Dena dela, Gurutze Gorria eta Ahizpa Oblatuak entitateek ohartarazi dutenez, azken urtean gora egin du Boli Kostatik, Konakry Gineatik eta Kamerundik etorritako emakume artatuen kopuruak.

Sexu-esplotaziorako gizakien salerosketa genero-indarkeria da, eta giza eskubideen beste urraketa larri batzuk izaten ditu ondo-ondoan. Emakume horietako askorentzat, haien jatorrizko herrialdera itzularazteko aukerak berriro biktimizatzeko, berriro salerosteko, ostrazismo soziala jasateko edo oinarritzko eskubideen urraketa larriak pairatzeko arriskua

dakar. Gainera, salerosketa-saretik kanpo sare sozialik edo laguntza-sarerik izaten ez dutenez, emakume horiek zail izaten dute nora joan daitezkeen edo nola lagundu ahal zaien jakitea.

2.1.- ESPARRU ARAUTZAILEAK

Emakumeen eskubideei eta sexu-esplotaziorako gizakien salerosketari buruzko eremuetan, honako hau da lege-esparrua:

Nazioarteko araudiaren eremuan

- Gizakien salerosketaren eta besterentzako prostituzio-esplotazioaren kontrako hitzarmena, Batzar Nagusiarena, 1949ko abenduaren 2koa, 317 (IV) Ebazpena. Espainiako Estatuak 1962ko ekainaren 19an berretsi zuen hitzarmen hau.
- Giza Eskubideen Europako Hitzarmena, 1950ekoa, Espainiako Estatuak 1976an berretsia, eta 11. Protokoloaren arabera berrikusitako Giza Eskubideen Europako Hitzarmena (1998ko azaroaren 1ean jarri zen indarrean).
- Emakumeen aurkako Diskriminazio Mota Guztiak Deuseztatzeko Hitzarmena (CEDAW), 1979koa, Nazio Batuen Batzar Nagusiarena (1981ean jarri zen indarrean). Espainiako Estatuak 1984an berretsi zuen.
- Batez ere Emakumeen eta Haurren Salerosketa Prebenitzeko, Deuseztatzeko eta Zigortzeko Protokoloa (Palermo Protokoloa), 2000ko azaroaren 15ekoa (New York), Antolatutako Delinkuentzia Transnazionalaren kontrako Hitzarmena (Nazio Batuak) osatzen duena. Espainiako Estatuak 2000ko abenduaren 13an sinatu zuen, eta 2002ko otsailaren 21ean onetsi eta berretsi (2003ko abenduaren 11ko BOE, 296. zk.).
- Gizakien Salerosketaren kontra Borrokatzeko Hitzarmena (Varsoviako Hitzarmena), Europako Kontseiluarena. 2005eko maiatzaren 16an onetsi zuten, Gizakien Salerosketaren kontra Borrokatzeko Europako Kontseiluaren Hitzarmena berresteko tresnaren bidez (Europako Kontseiluaren 197. hitzarmena), Varsovian. Espainiako Estatuak 2008ko uztailaren 9an sinatu zuen, eta BOEk 2009ko irailaren 10ean argitaratu zuen, 219. zenbakian.

- 2011/36/EB Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2011ko apirilaren 5ekoa, gizakien salerosketa prebenitzeari, haren aurka borrokatzeari eta biktimak babesteari buruzkoa eta Kontseiluaren 2002/629/JAI esparru-erabakia ordezkatzeko duena. Gizakien salerosketaren eremuan, zigor-arloko arau-haustek eta zigorrak zehazteko gutxieneko arauak ezartzen ditu. Halaber, xedapen erkideak txertatzen ditu, genero-ikuspegia kontuan hartuta, delitu horren prebentzioa eta biktimen babesa hobetzeko.

Estatuko araudiaren esparruan

- 5/2010 Lege Organikoa, ekainaren 22koa, Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa (2003ko ekainaren 23ko BOE, 152. zk.) aldatzen duena.
- 1162/2009 Errege Dekretua, uztailaren 10ekoa, urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua aldatzen duena (4/2000 Lege Organikoa, Espainian dauden atzerritarren eskubideei eta askatasunei eta horien gizarteratzeari buruzkoa, abenduaren 30eko 2393/2004 Errege Dekretuaren bidez onetsia (2009ko uztailaren 23ko BOE, 177. zk.).
- Sexu-esplotaziorako Gizakien Salerosketaren kontra Borrokatzeko Plan Integrala (2009-2012ko Salerosketa Plana), Espainiako Estatuko gobernuarena, 2008ko abenduaren 12an onetsia eta indarrean jarria.
- Gizakien Salerosketaren Biktimak Babesteko Esparru Protokoloa, 2011ko urriaren 28ko akordioaren bidez onetsia, Justizia Ministerioaren, Barne Ministerioaren, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren, Osasun Ministerioaren, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasunerako Ministerioaren, Estatuko Fiskaltzaren eta Botere Judizialaren Kontseiluaren artean.

Euskal Autonomia Erkidegoko araudiaren eremuan

- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako dena (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 2011ko azaroaren 14an, 17779. zenbakian).
- 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa (abenduaren 24ko EHAAn (246. zk.) eta 2011ko urriaren 7ko BOEn (242. zk.) argitaratu zen).

- Barne-koordinazioko protokoloa, suspertzeko eta gogoeta egiteko al-dian dauden sexu esplotaziorako gizaki-salerosketaren biktimei laguntzekoa (2011).
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana. Bertan, emakumeen kontra ezartzen diren eta gure inguruan azaleratzen ari diren beste indarkeria mota batzuk zehazten dira (hala nola, sexu-esplotaziorako gizakien salerosketa), Planean jorratzeko.
- Sexu-esplotaziorako Gizakien Salerosketaren aurkako Ekintza Plana, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailarena eta Ertzaintzarena (2017ko abenduaren 14an argitaratu zen).

2.2.- BIZKAIAN ARTATUTAKO EMAKUMEEN PROFILA

Gizakien salerosketa neurtzea ez da erraza. Ez dago datu erreal, homogeneo eta sistematikorik: poliziak eta elkarteen nahiz akademiaren munduak egitate isolatuen berri baino ez daukate.

Entitateekin egindako elkarrizketetan eta horien memorietan jaso ditugun datuetatik abiatuta, gizarte-entitateek azken urteetan artatu dituzten emakumeen kopurua jaso dugu. Sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktima gisa identifikatu diren emakumeen arretan, narbarmenezkoa da azken hiru urteetan pixkanaka gora egin duela bizitegi-programan artatutako emakumeen kopuruak. Bestetik, datuetan ikus daitekeenez, egoitza-baliabiderik eskatzen ez duten emakumeak gehiago artatzen dira, eskatzen dutenak baino (1. taula).

1. taula: Askabidek sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktimei arreta integrala emateko programan artatutako pertsonak:

	2015	2016	2017
Bizitegi-arreta	4 + ardurapeko adingabe 1	7 + ardurapeko adingabe 1	8 + ardurapeko adingabe 1
Bizitegikoa ez den arreta**	2	14	16
Guztira artatuak	6	21	25

Iturria: Guk geuk egina.

**Programak bi bizitegi dauzka sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktimentzat.*

***Bizitegikoa ez den arretak aholkularitza- eta bidelaguntza-zerbitzua eskaintzen die bizitegi-baliabidean sartzea eskatzen ez duten edo bizitegiko egonaldia amaitu ondoren suspertze-prozesua maila ambulatorioan jarraitu nahi duten biktimei.*

Bestetik, aipatzekoa da biktima izan daitezkeen askoz ere emakume gehiago detektatzen direla, identifikatu baino: lau aldiz gehiago (2. taula). Hartara, garrantzitsua da honako hau argitzea: emakume identifikatuez ari garenean, salaketa-prozesua abiatu duten emakumeak ditugu gogoan; emakume detektatuez ari garenean, ordea, erakundeek salerosketaren biktima posible gisa identifikatzen dituzten emakumez dihardugu; hots, biktima izan daitezkeen baina salaketarik jarri ez duten emakumez. Horrek agerian jarri duenez, salerosketaren errealitatea are latzagoa da identifikatutako biktimen kopuru ofizialak erakusten duena baino.


2. taula: Ahizpa Oblatuak entitateak Leiho Zabalik programan artatutako emakumeak

	2015	2016	2017
Identifikatuak	8	12	15
Detektatuak	33	51	53
Guztira artatuak	41	63	68

Iturria: Guk geuk egina.

Jatorriari dagokionez, bizitegi-baliabideetan artatutako biktima identifikatu gehienak nigeriarrak dira; hala ere, Errumaniakoak, Paraguaykoak, Ekuatore Gineakoak eta Brasilekoak ere badaude, baina askoz ere gutxiago (3. taula).

1. grafikoa: Askabidek sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktimei arreta integrala emateko programaren baitako bizitegi-baliabidean artatutako pertsonen kopurua, jatorriaren arabera



Iturria: Guk geuk egina.


3. taula: Leiho Zabalik programan 2017an artatutako biktima identifikatuen jatorria

JATORRIA	BIKTIMA-KOPURUA
Nigeria	11
Ekuatore Ginea	1
Errumania	1
Paraguay	1
Brasil	1

Iturria: Guk geuk egina.

Alabaina, emakume detektatuen jatorriak askotarikoagoak dira, eta ezberdinak. Lehenik eta behin, Nikaragutik datozen emakumeen kopuru handia nabarmentzen da; bigarrenik, Nigeria dago, eta, ondoren, besteak beste, Honduras, Bolivia eta Kolonia (2. grafikoa).


2. grafikoa: Ahizpa oblatuen Leiho Zabalik 2016-17 programan artatu eta detektatutako emakumeen jatorria



Iturria: Guk geuk egina.

Errealitate aldakorra izatea da gizakien salerosketaren ezaugarrietako bat. Azken urteetan, esponentzialki hazi da erakunde batzuek kaleko lanean dabilzan emakume nigeriarrei ematen dieten arreta (3. grafikoa). Alabaina, Hiesaren Aurkako Batzordeak eta Gurutze Gorriak aldaketa baten berri eman digute 2017an: behera egin du jatorri nigeriarra duten emakumeen kopuruak, eta gora egin du Saharaz hegoaldeko Afrikako beste herrialde batzuetatik datozenenak (hala nola, Ekuatore Gineatik, Konakry Gineatik eta Kamerundik datoz, 3. taulan ikus daitekeen bezala).

3. grafikoa: Hiesaren aurkako Batzordearen Emakumea eta Prostituzioa Programan artatutako emakume nigeriarrak



Iturria: Guk geuk egina.

4. taula: Gurutze Gorriak Laguntza Humanitarioko Programan artatutako emakumeak

	2015	2016	2017
Gizakien salerosketaren biktima izateko zantzuekin identifikatuak*	17	4	19
Guztira artatuak	32	30	181
Jatorri nagusia	Kamerun	Konakry Ginea eta Boli Kosta	Konakry Ginea eta Boli Kosta

Iturria: Guk geuk egina.

*Adierazi beharra dago balitekeela 2016an eta 2017an kopurua are handiagoa izatea. Alabaina, emakumeek baliabide honetan igarotzen duten denbora eskasa denez (batzuetan, egun bat edo bi), ezinezkoa da zantzuak zehatz-mehatz berrestea.

Datuak sistematizatu eta biltzeari buruz, datuak segurtasun- eta polizia-indarren, gizarte-entitateen eta antolakundeen artean koordinatzeko eta alderatzeko premia sentitzen dute; izan ere, askotan, biktima berbera zenbatzen dute arreta eman dioten gizarte-entitate guztiek eta polizia-indarrek, eta, ondorioz, maneiatzen diren datuak ez dira benetakoak izaten. Zentzu horretan, oinarritzkoa iruditzen zaie pertsonen salerosketaren gaian eskumena duten erakunde publikoek datuak koordinatu eta zentralizatzea, biktima-kopurua zehaztasunez zenbatu ahal izan dadin. Hortaz, erregistro bakar eta koordinatua diseinatu beharko litzateke. Datuak errepikatzeaz gain, hutsune gehiago nabaritzen dituzte erregistroan: biktimekin egiten diren esku-hartzeak zenbatzen dira, eta ez pertsonak, eta horrek benetako datuak indargabetzen ditu. Beraz, irizpideak bateratu behar dira, eta erregistro komun bat diseinatu, artatzen diren biktimak zenbatzeko. Gainera, formalki identifikatu direnak eta ustezko biktimak edo biktima potentzialak bereizi behar dira.

SEXU-ESPLOTAZIORAKO GIZAKIEN SALEROSKETAREN BIKTIMEKIN ETA HORTIK BIZIRIK IRTENDAKOekin EGITEN DEN ESKU-HARTZE SOZIALAREN ERREALITATEAREN DIAGNOSTIKOA

Sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktimekin eta hortik bizirik ateratakoekin egiten den esku-hartze sozialaren gaur egungo egoeraren gaineko diagnostikoa egiteko, Bizkaiko lurralde historikoan prebentzio- eta arreta-arloan lan egiten duten gizarte-entitateekin jarri gara harremanetan. Guztira, zortzi elkarrizketa egin dira erakunde bakoitzeko profesionalekin. Elkarrizketak 2017ko abenduaren eta 2018ko martxoaren artean egin ziren, eta, batez beste, ordu eta erdi edo bi ordu iraun zuten. Elkarrizketak grabatu eta transkribatu egin ziren, ondoren aztertzeko. Honako gizarte-entitate hauek hartu zuten parte elkarrizketetan¹ : Ahizpa Oblatuak, Askabide, Hiesaren Aurkako Batzordea, Gurutze Gorria, Save the Children Euskadi, CEAR Euskadi eta Munduko Medikuek. Bestetik, elkarrizketak egin aurretik, Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko zerbitzuburuarekin hitz egin genuen, gaur egun egiten diren programen eta prestazioen berri edukitzeko.

Elkarrizketak aztertu eta gero, gaur egun gizakien salerosketan esku hartzeko arloan dauden premien eta erronken berri ematen duten sei ardatz nagusi identifikatu dira: (i) gizakien salerosketaren biktimekiko begirada birdefinitzea, (ii) lege-arloko hutsuneak, (iii) jarduteko protokoloaren mugak, (iv) zerbitzu- eta baliabide-gabezia, (v) eskumenen banaketa ar-

¹: Dokumentuaren amaieran, baliabideen gida bat txertatu dugu, eta, bertan, egiten diren programak eta jarduerak jasotzen dira. .

girik eta sareko lanik ez egotea, (vi) profesionaleri ematen zaien laguntza.

1.- Gizakien salerosketaren biktimekiko begirada birdefinitzea

Entitateek adierazi dutenez, emakumeekin esku hartzeko eta jarduteko orduan oso garrantzitsua da gizakien salerosketaren biktimen inguruan dagoen iruditeria. Zentzu horretan, honako hiru alderdi hauek nabarmendu dituzte: batetik, salerosketaren, trafikoaren eta prostituzioaren inguruko terminoak nahastu egiten dira; bestetik, biktima-kontzeptua desmitifikatu eta zabaldu behar da, eta, azkenik, emakumeek bizirik irteteko duten gaitasuna nabarmendu behar da, emakume horiek bigarren aldiz biktimizatu ez daitezen eta, ondorioz, emakumeak politika publikoen aurrean protagonismorik gabeko objektu instrumentalizatuak izan ez daitezen.

1.1.- Termino-nahasketa

Sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren fenomeno duela gutxikoa da bai gizartearentzat, bai biktimekin lan egiten duten profesionalentzat. Horren ondorioz, besteren artean, fenomenoaren definizioa edo ez-augarriak erabat zehaztu gabe daude oraindik orain, eta, beraz, sarritan, beste termino edo fenomeno batzuekin nahasten da kontua; hala nola, prostituzioarekin. Oso ohikoa da gizakien salerosketa eta prostituzioa maila berean jartzea eta, are, fenomeno baliokidetzat hartzea. Zenbait alderditan bat egin ahal badute ere, egiazki gauza ezberdinak dira:

«Prostituzioaren eta salerosketaren arteko aldeak argitu behar dira. Prostituzioa jazartzen da, baina prostituzio guztia ez da salerosketa» (Hiesaren Aurkako Batzordea).

«Garrantzitsua da gizakien trafikoaren, prostituzioaren eta gizakien salerosketaren artean bereiztea» (Gurutze Gorria).

«Honi buruz hitz egiten dugun aldiro, lehendabizi, trafikoa, salerosketa eta prostituzioa bereizten ditugu. Asko nahasten dira. Gizakien salerosketaren biktima asko ez dira biktima direla konturatzen, hein batean, prostituzioa eta salerosketa nahasten direlako. Prostituta izatea gauza bat da, beste bat sexualki esplotatua izatea, eta beste bat salerosia izatea. Eta haiek kontziente ez badira, are gutxiago izango da gizartea» (Munduko Medikuek).

Gizartean prostituzioaren inguruan dagoen eztabaidak ere eragiten du; izan ere, baliozkoa eta jorratu beharrekoa izan arren, askotan salerosketaren gaitik prostituziora desbideratzen ditu arreta eta begirada. Hori de-

la-eta, garrantzitsua da terminoak argi eta garbi bereiztea, unean-unean egokitzen den eremuari heltzea eta errealitate bakoitzarekin bat egiten duten politika publikoak sortzea.

1.2.- Biktimak edota bizirik irtendakoak?

Erabiltzen ditugun hizkuntza eta hitzak ere funtsezkoak dira gizakien salerosketaren eremuan. Indarkeria hori jasaten duten pertsonak izendatzeko moduak, gizartean ez ezik, berori jasaten duten pertsonengan ere eragiten du. Gainera, pertsona horiekiko dugun begiradaren atzean dauden sinesmen eta ñabardura guztiak jartzen ditu horrek agerian. Askabide eta Munduko Medikuek erakundeek adierazi duten moduan, «biktima» hitzaren eta bere konnotazioen gainean hausnartu behar da, halabeharrez, gutxietsi eta berriro biktimizatzen dutelako. Zentzu horretan, biktima bakarrik izendatu ordez bizirik irtendakotzat ere hartzea garrantzitsua dela esan dute, horrela ez zaiolako laguntzen «salerosketaren biktima» hitzak dakarren estigmatizazioari.

«Garrantzitsua da emakumeak ez biktimizatzea. Biktima-kontzeptua birpentsatu behar dugu. Zein da biktima-kontzeptua? Zer da biktima izatea?» (Askabide).

«Batzuetan, biktima hitza erabili behar da, eta, beste batzuetan, bizirik irtendakoa» (Munduko Medikuek).

1.3.- Biktima kategoriarekiko begirada homogeen eta estankoa

Gaur egungo gizartean gizakien salerosketaren inguruan ditugun iruditeriaren eta ezagutza-faltaren ondorioz, begirada homogeen eta estankoa daukagu indarkeria hori jasaten duten emakumeen gainean, estigmez, mitoz eta aurreiritziz beterikoa, Ahizpa Oblatuak edo Munduko Medikuek erakundeek azaldu dutenez:

«Gizartean dagoen iruditeria hautsi behar da. Bertan, gizakien salerosketaren biktima toki batean giltzapetuta dago, eta ez dauka mugitzeko askatasunik; gainera, pobrea eta ezjakina da, eta ez du zertan hala izan» (Ahizpa Oblatuak)

«Gizakien salerosketaren emakume biktima giltzapetuta eta aulki bati lotuta dagoela dioen mitoa hautsi behar da, benetan zure auzokidea izan daitekeelako, edo supermerkatuan zure ondoan erosten egon daitekeelako. Garrantzitsua da estigmaren, mitoen eta aurreiritzien aurka egitea» (Munduko Medikuek).

Begirada horretan, bada, biktimak emakume pobreak dira, giltzapetuak, babesgabeak, engainatuak, hezigabeak eta agentziarik gabeak. Gainera, gizakien salerosketa kontu urruntzat hartzen dugu oro har, beste kultura batzuetako emakumeen kontutzat. Ondorioz, nolabaiteko nagusitasunez begiratzen diegu, eta «salbatzailearen» eta «salbatuaren» rolak betikotzen jarraitzen dugu.

2.- Lege-arloko hutsuneak

2.1.- Sexu-esplotaziorako salerosketa, indarkeria matxistaren adierazpen

Gizakien salerosketaren biktimekin lan egiten duten profesionalek topatzen duten zailtasunetako bat genero-indarkeriaren definizioak duen mugaketa da. Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurri buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak aditzera ematen duenez, genero-indarkeria ez da eremu pribatuari eragiten dion arazoa, eta indarkeria hori desberdinkeraren sinbolo bat dela ulertarazten du, eta emakumeak izategatik bakarrik ezartzen dela emakumeen gainean.

Alabaina, Legearen artikuluetan ez dira emakumeen kontrako beste indarkeria mota batzuk jaso (hots, harreman afektiboan eremutik kanpokoak), eta, besteak beste, sexu-esplotaziorako gizakien salerosketa-egoerak alboratu dira. Honela azaldu dute entitate batzuek:

«Emakumeen kontrako indarkeria mota asko daude, eta gizakien salerosketa da handienetako bat. Eta, laguntza bat eskatzeko orduan, salerosketaren eta sexu-esplotazioaren biktima asko kanpoan geratzen dira» (Ahizpa Oblatuak).

«Lege-mailan, genero-indarkeriaren kontzeptua aldatu behar da, ez dadin bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakora mugatu, biktima asko kanpoan geratzen direlako. Zabaldu egin behar da» (Askabide).

«Genero-indarkeriari buruzko legeek bikotekideak edo bikotekide ohiak ezarritako indarkeria bakarrik hartzen dute kontuan, eta gizakien salerosketa ere hor sartu behar da» (CEAR Euskadi).

«Gu eragiten saiatzen ari gara, emakumeen salerosketa eta emakumeen genitalen mozketa genero-indarkeriatzat har daitezen; batez ere, egon litezkeen biktimei gauzak erraztu ahal zaizkielako» (Munduko Medikiak).

Antolakunde guztiek ikusten dute beharrezkoa genero-indarkeriaren kontzeptua birformulatzea, «emakumeen kontrako indarkeriaz» hitz egin dezagun; horrela, sexu-esplotaziorako gizakien salerosketa indarkeria mota horren forma ugarietako bat izango litzateke. Kontzeptua aldatuz gero, genero-indarkeriari buruzko lege berriak gizakien salerosketaren biktimak babestuko lituzke, eta gainerako biktimek dauzkaten baliabide eta aukera berberak edukiko lituzkete. Hala, Gaztela-Leongo Genero-indarkeriaren aurkako abenduaren 9ko 13/2010 Legea horren adibidea da: genero-indarkeriaren gaineko kontzeptu irekiagoa jasotzen du, eta emakumeen kontra emakume izate hutsagatik ezartzen den eta bikote-, familia-, lan- eta gizarte- nahiz komunitate-eremuetan gerta daitekeen indarkeriazko edozein ekintza hartzen du kontuan. Halaber, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren aurka jarduteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea daukagu, Nafarroakoa. Bertan, argi eta garbi zehazten dira emakumeen aurka ezartzen diren indarkeria motak, eta, horien artean, emakumeen eta neskatuen salerosketa azaltzen da, Emakumeek Indarkeria Matxista Deuseztatzeko duten Eskubideari buruzko apirilaren 24ko 5/2008 Legean (Kataluniako Generalitatea) bezalaxe.

2.2.- Salerosketaren aurka borrokatzeko lege integral bat behar da

Gizakien salerosketaren emakume biktimei arreta ematen dieten erakundeek aho batez adierazi dute nahitaez eman behar direla gizakien salerosketari buruzko legeak. Alde batetik, ezinbestekoa da sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren fenomeno argi eta garbi definituko duen lege integral bat egotea gizakien salerosketaren kontra. Bestetik, Ahizpa Oblatuek azaldu duten moduan, lege horrek giza eskubideen ikuspegitik abiatu behar du, genero-ikuspegia jaso behar du, eta aintzat hartu behar du ikuspegi antropologiko eta kulturala, fenomeno modu konplexuagoan ulertu ahal izateko:

«Gizakien salerosketaren kontrako lege integral bat egin behar da, baina giza eskubideen eta generoaren ikuspegitik abiatu behar du, eta aintzat hartu behar du kulturarteko errealitatea dela. Estatu-mailako lege integrala izan beharko luke, baina errealitatetik abiatutakoa» (Ahizpa Oblatuak).

3.- Jarduteko euskal protokoloaren mugaketak

Legediak, planak eta protokoloak erakundearteko koordinazioa indartzen saiatzen dira, eta, are, estatu-mailako Esparru Protokoloak erakunde espezializatuen esku uzten du biktimak seguru eta babestuta egoteko

ardura. Praktikan, ordea, emakumeen egoera eta eskubideak bigarren plano batean geratzen dira.

2012an, «Barne-koordinazioko protokoloa, suspertzeko eta gogoeta egiteko aldian dauden sexu esplotaziorako gizaki-salerosketaren biktimei laguntzekoa»² protokoloa idatzi zen Euskadin, eta lan-ildo bat edo bide komun bat zehaztu zien horrek Euskadin gizkaien salerosketaren biktimekin lan egiten duten profesionali. Protokoloa edukitzeak aurrerapausoak ekarri dituen arren, gizarte-entitateek mugaketa batzuk hautematen dituzte.

3.1.- Zer gertatzen da detektatuekin?

Protokoloari jarraikiz, gizakien salerosketaren biktima bat salaketa jartzen duenean, polizia-indarren aurrean deklaritzen duenean eta polizia-indarrek salerosketaren biktimatzat jotzen dutenean identifikatzen da biktima gisa ofizialki. Profesionalek eguneroko lanean topatzen duten zailtasunetako bat, ordea, detektatu bai baina identifikatu ez diren biktimekin zer egin izaten da. Gizakien salerosketaren biktima detektatuek harremana izaten dute gizarte-entitateren batekin, eta, han, gizakien salerosketaren biktimatzat edo biktima posibletzat hartzen dira, eduki ditzaketen askotariko zantzuengatik³, salaketarik jarri ez duten arren. Askabiden azaldu digutenez, nahiz eta gehien-gehienak horrelakoak izan, ofizialki ez dira biktimatzat hartzen:

«Konplikatua zera da, guztiak ez direla gizakien salerosketaren biktima gisa identifikatzera iristen. Identifika ditzaten, prozesu oso bat igaro behar dute, eta, hor, biktima-kategoria eduki; bestela, ez dira ezer» (Askabide).

Egiazki, horrek aukera-berdintasuna urratzen du «biktima ofizialei» dagokienez, ez baitute babes eta zerbitzu berberak jasotzeko eskubiderik izaten. Hau da, gizakien salerosketaren emakume biktimek eskuratu ditzaketen baliabide urrietatik kanpo geratzen dira identifikatu ez direnak, ofizialki biktima izendatu ez direnak:

2: *Eusko Jaurlaritzaren Barne, Justizia eta Administrazio Publikoko Sailaren mendeko Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzak koordinatu zuen protokoloa, eta sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren emakume biktima guztiak suspertzeko behar duten denbora edukitzen eta haien egoerarekin egokiak diren babesa, arreta eta tratamendua jasotzen laguntzea dauka xede.*

3: *Hainbat emakumek errepikatzen duten kontakizun komunean atzeman daitezke zantzu batzuk (herrialde honetara nola iritsi diren, nor ekarri dituen eta nora joan nahi duten); bestetik, emakumeak mesfidati agertzen dira erakundeen aurrean, eta kontrolatzaile gisa jarduten duten pertsona jakin batzuk (gizonak edo emakumeak) agertzen dira emakumeen inguruan. Batez ere Emakumeen eta Haurren Salerosketa Prebenitzeko, Deuseztatzeko eta Zigortzeko Palermo Protokoloak (Nazio Batuak) ezartzen dituen faseetan oinarritzen dira zantzuok.*

«Arazoa ez dira identifikatuak, baizik eta zer egin behar dugun guk detektatzen ditugunekin. Guk berdin jarduten dugu salaketa egon ala ez egon. Guztiek bizi izan dute antzeko egoera, salaketa jarri ala ez gorabehera. Egoera berbera bizi izan badu, azkenean emakumea interesatzen zaizu; erabakitzen duenak ez du axola. Ezin ditzakegu identifikatuak bakarrik hartu salerosketaren biktimatzat: detektatuak ere halakotzat jo behar ditugu» (Ahizpa Oblatuak).

«Arazo bat daukagu biktimen identifikazio ofizialarekin eta gure detekzioarekin. Ezinbestekoa da detektatuei arreta eman eta haiekin lan egin ahal izatea» (CEAR Euskadi).

Oro har, salaketa da gizakien salerosketaren biktimaren kategoriaren barruan ofizialki aitortua izatera iritsi ahal izateko funtsezko elementua. Esan genezake nolabaiteko polaritatea eta sailkapena daudela emakumeak «ofizialki aitortutako biktimatzat» edo «ez biktimatzat» jotzeko orduan; salaketa ofiziala jarri ezean, ez dago ñabarduretarako edo bestelako jorraketetarako aukerarik. Alabaina, eguneroko lanean, emakume horiei laguntzen dietenak askoz ere biktima posible gehiago detektatzera iristen dira zantzuen bidez, ofizialki identifikatzera iristen ez diren biktimak izaki horiek. Profesionalek (hala nola, Hiesaren Aurkako Batzordekoek) adierazi dutenez, salaketarik jarri ezin izan dutenak edo salaketarik jarri nahi izan ez dutenak diskriminatzen dira horrela, eta lehenengo eta bigarren mailako biktimen sailkapen moduko bat dagoela dirudi.

«Ez litzateke inolako diskriminaziorik egin beharko salaketa jarri ala ez jarri. Guztiak dira beren eskubideak urratuta dauzkaten emakumeak» (Hiesaren Aurkako Batzordea).

Horren ondorioz, batetik, emakumeek erabakitzeko duten eskubidea ukatzen da, eta salatzeko betebeharra ezartzen, eta, bestetik, emakume horiekiko lana askoz ere mugatua da: ezin zaie protokoloa aplikatu, eta salaketa egon ala ez egon baldintzatzen dira baliabideak:

«Zerbitzuak, baliabideak eta arreta ezin ditzakegu emakumearen salaketa egon ala ez egon baldintzatu» (CEAR Euskadi).

Zentzu horretan, genero-indarkeriaren biktimekin jarduteko protokoloa⁴ har genezake oinarritzat, horren arabera emakumeek ez baitute salake-

4: Hemen ikus daitezke askotariko protokoloak: https://www.bizkaia.eus/Gizartekintza/Genero_Indarkeria/eu_dokumentuak.html

tarik jarri behar baliabideak eskuratu ahal izateko. Hori dela-eta, erakundeek beharrezko ikusten dute profil ezberdinekin lan egiteko moduari buruz hausnartzea; hau da, kontzientziatu ez diren edo hitzez adierazi nahi ez duten pertsonekin edo esplotatuak diren pertsonekin nola lan egin pentsatu behar da. Biktimaren definizio judizialari heltzeak lana eta emakumeei ematen zaien laguntza mugatzen ditu:

«Gizakien salerosketaren biktima izan daitezkeen kolektiboa zehaztu behar dugu: Nor sartzen da? Detektatutako biktima posibleak? Salaketa jarri dutenak bakarrik dira salerosketaren biktimak? Baieketa egin behar da? Biktima direla dioten guztiak har ditzakegu kon-tuan? Nola egin dezakegu lan profil ezberdinekin?» (Gurutze Gorria).

3.2.- Bigarren biktimizazioa

Erakunde guztiak bat datoz esatean ezinbestekoa dela gizakien salerosketaren biktimak identifikatzeko prozesua aldatzea. Baieztatzen dute-nez, bidegabea eta kaltegarria da prozesu judizialaren pisu guztia eta deklaratzeko behar den indarra emakumearen esku uztea. Emakumea salaketa jartzen duenean bakarrik identifikatzen denez biktima gisa, salaketarik ez jartzea erabakitzen duten guztiak kanpoan geratzen dira. Hala, Ahizpa Oblatuek azaldu dutenaren arabera, prozesu zaila izaten da, eta ez dute beti erabaki hori hartzen; izan ere, askotan, emakumeek beraiek ez dute beren burua salerosketaren biktimatzat hartzen, eta, era berean, salatzeak bigarren biktimizazioa ekar dezake, lehen begiratuan ikus ditzakegunak baino askoz ere ondorio gehiago baitaizka haientzat (beldurra, errepresaliak, mehatxuak...):

«Froga-indar guztia emakumearen deklarazioari ez egoztea ere garrantzitsua da, bigarren biktimizazioa saihesteko eta bestela oso zaila egiten delako; ez dute salaketarik jarri nahi izaten. Behin detektatutakoan biktimatzat har daitezela, salaketa emakumeak har dezakeen ala har ez dezakeen erabakia delako» (Ahizpa Oblatuak).

Gainera, profesionalek ere zalantzak dauzkate salaketaren ostean eskaintzen zaizkien bermeen inguruan. Izan ere, salatzeak berak ez dakar automatikoki biktimatzat hartzea, CEAR Euskadin argudiatu duten beza-la polizia-ikuspegia gailentzen zaiolako eskubideen ikuspegiari:

«Salatzerakoan, polizia-ikuspegia nagusitzen da, eskubideen ikuspegiaren kaltetan. Polizia-kidegoek salaketak emaitzak edukitzea be-

har dute; hau da, salaketak tratulariak identifikatzeko balio izatea. Horrek jarraitzen du izaten lehentasuna» (CEAR Euskadi).

Erakundeek, halaber, emakume horiek inguratzen dituzten inguruabar espezifikoak azpimarratzen dituzte, salaketa jartzeko urratsa ematea zailtzen baitute. Emakumeek indartsu eta behar beste ahaldunduta dau dela sentitu behar dute, salatzeak dakarren prozesuari aurre egiteko:

«Identifikazioaren prozesu judizial guztia ez litzaioke biktimari ego kitu beharko, salaketa jartzeko urratsa ematea ez baita ez erraza, ez ohikoa izaten. Irreal da hori guztia (hots, salaketa jarri eta sarea desegitea) haiei egokitzea» (Askabide).

«Ahalduntzerik gabe, ez dago salaketarik. Oso gutxi ahaldundutako emakume bat bera ere ez da salaketa jartzeko gai» (Ahizpa Oblatuak).

Era berean, adierazi dutenez, oso garrantzitsua da, biktimen identifikazioa salaketara eta emakumeen deklaraziora ez mugatzeaz gain, gizarte-entitateen eguneroko esku-hartzeetan eta lanean hautemandako zantzuak eta detekzioak kontuan hartu ahal izatea.

«Identifikazio-prozesuaren pisu guztiak ez du emakumearengan egon behar» (Hiesaren Aurkako Batzordea).

«Identifikazioa, poliziak ez ezik, erakunde eta administrazioekiko baterako lanak ere egin behar du» (Askabide).

4.- Sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktimei eta haien seme-alabei zuzenduriko zerbitzuen eta baliabideen gabezia

Gaur egun, Euskadin ez dago sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren emakume biktimen arretarako baliabide edo zerbitzu espezifikorik. Toki espezifiko bakarra dago Euskal Autonomia Erkidego osorako, Askabidek kudeatzen duen bizitegi-baliabide batean. Bestalde, espezifikoak ez diren sei toki daude Ahizpa Oblatuek koordinatzen duten bizitegi-baliabide batean, eta, bertan, gizakien salerosketaren emakume biktimek daukate lehentasuna. Emakundek duela gutxi iragarri du gizakien salerosketaren biktimentzako urgentziatzko harrera-pisu bat abiatuko dela⁵. Horrek age-

5: 2018ko martxoaren 7an, gizakien salerosketaren biktimentzako urgentziatzko harrera-pisu bat abiatuko zela iragarri zuen Emakundek: <http://www.emakunde.euskadi.eus/albiste/2018/giza-eskubide-eta-berdintasun-batzordea-2018/03/07/u72-contema/eu/>

rian jartzen ditu hainbat hutsune eta premia (ondoren garatuko ditugunak).

4.1.- Gizakien salerosketaren biktimei zuzendutako finantzazioaren eta baliabideen gabezia

Eguneroko lanean inplikaturik dauden pertsonak, gizakien salerosketaren inguruko legeak sortzea edo horren gainean teorizatzea funtsezkotzat jotzen duten modu berean, oinarritzotzat jotzen dute finantzaziodun baliabideak sortzea bai arreta integrala emateko, bai gizartea sentsibilizatzeko:

«Planek aurrekontuak, benetako ekintzak, baliabideak... eduki behar dituzte» (CEAR Euskadi) .

«Esparru teorikoek gauza zehatzak izan behar dituzte ondoan (adibidez, legediak), eta legeekin batera aurrekontua etorri behar da: gauza erreal eta zehatzak behar dira» (Askabide).

«Sentsibilizazioaren eta eragin politikoaren gaien, finantzazioa falta da. Beti hitz egiten da sentsibilizazioaren eta prebentzioaren garrantziaz, baina ez dago ez baliabiderik, ez finantzaziorik» (Munduko Medikuek).

Guztiek adierazi dute sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren gaiak finantzazio-lerro jarraitu eta egonkorra izan behar duela erakundeek prozesuak abiatu ahal izan ditzaten emakumeekin, eta alternatibak eskaini. Bestela, lana beti izaten da epe laburrera begirakoa, urteko diru-laguntzen mende egoten baitira:

«Gutxiago teorizatu eta gehiago ekin behar dela uste dut, errealitateari gehiago begiratu behar zaiola. Garrantzitsua da politika publikoetan eragitea lortzea. Gizakien salerosketaren kontrako lege integrarean, legez ezarri beharko litzateke jarraitutasuna bermatzeko baliabideak egotea, urtero diru-laguntzen mende ez egoteko. Premiei erantzuteko baliabideak behar dira» (Ahizpa Oblatuak).

«Finantzazioa behar da, aukera gehiago eman eta kalitateko baliabide eta lana eskaini ahal izateko. Baliabideak sortzera bideratu behar dira aurrekontuak» (Askabide).

Ildo horretan, finantzazioarekin lagundu beharreko lan-ildo garrantzituak

sutzat jotzen da erakunde batzuek kalean egiten duten lan komunitario eta hurbila edo osasun- eta hezkuntza-arloko eragileek egiten duten lana:

«Gizakien salerosketaren biktimekin harremana izango duten eta egiten ari den lana egingo duten talde komunitarioak finantzatu behar dira. Hor egoten jarraitu ahal izateko oinarria behar dugu, prozesuaren zati ezberdinetan esku hartzen dugun profesionalontzako finantzazioa kenduz gero ezingo baita lanarekin jarraitu, ez eta taldeak indartu ere» (Hiesaren Aurkako Batzordea).

4.2.- Gizakien salerosketarako baliabide espezifikoak vs genero-indarkeriarako baliabide orokorrak?

Hainbat erakundetan zuzeneko arretan lan egiten duten pertsonak gizakien salerosketaren biktimentzako edo hortik bizirik irtendakoentzako baliabideak sortzeari buruzko iritzia eman dute. Egia esan, kolektibo horrentzat baliabide espezifikoak edo orokorrak behar diren eztabaidagai dago.

Alde batetik, sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktimentzat baliabide edota laguntza espezifikoek egon behar dutela adierazi dute antolakunde batzuek:

«Baliabide espezializatu eta espezifikoak behar ditugu salerosketaren biktimentzat. Jendea kanpoan uzten duten sistemekin egiten dugu lan» (CEAR Euskadi).

Askabiden azaldu duten moduan, gaur egun, Euskadin, ez dago gizakien salerosketaren emakume biktimentzako baliabide edo diru-laguntzarik, eta, gainera, ezin izaten diete beste kolektibo batzuei (adibidez, genero-indarkeriaren emakume biktimei) eskaintzen zaizkien prestazioei heldu.

«Oraintxe bertan, Euskadin, ez dago. Ez dago gizakien salerosketaren biktimei zuzenduriko prestazio ekonomikorik, eta ez dira genero-indarkeriaren biktimentzako laguntzen barruan sartzen» (Askabide).

Horren aurrean, agerikoa da gizarte-zerbitzuen sisteman aldaketak egin behar direla edo zabaldu egin behar direla, gizakien salerosketaren emakume biktimentzako arretak tokia izan dezan. Prozesuetan esku hartzen duten eragileen artean, eztabaidagaia da baliabide horiek espezifikoak izan behar duten ala ez. Batetik, erakunde batzuek (adibidez,

Ahizpa Oblatuek) adierazi dutenez, gizakien salerosketak tratamendu eta irizpide espezifikoak behar ditu, eta, horretarako, gizakien salerosketaren biktimentzako baliabide propioak sortu behar dira; bestetik, Gurutze Gorriak azaldu duen moduan, baliabide integraletan bildu beharko lirateke emakumeen kontrako indarkeria mota ezberdinen biktimak. Horri begira, gizakien salerosketaren emakume biktimentzako toki espezifikoak sortu beharko lirateke jada badauden baliabideetan:

«Gizakien salerosketak tratamendu espezifikoa behar du, genero-indarkeriatik kanpokoa, gaur egun dagoen moduan. Arreta emateko orduan, irizpide espezifikoak behar dira» (Ahizpa Oblatuak).

«Gizakien salerosketaren biktimentzako toki gehiagok egon behar dute baliabideetan. Baliabide integralak behar ditugu. Ez daude gizakien salerosketaren biktimentzako toki zehatzak. Beste autonomia-erikidego batzuetara bideratu behar izaten ditugu» (Gurutze Gorria).

Nolanahi ere, bistakoa da sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktimei arreta eman eta laguntzeko eskaini nahi diren baliabideen inguruan hausnartu eta lan egin behar dela. Munduko Medikuek ohartarazi dutenez, sexu-esplotaziorako gizakien salerosketa-sareak aurretik ibiltzen dira beti, eta dauden baliabide nahiz laguntza guztiak ezagutzen dituzte. Hala ere, horrek ezin du izan biktimak oinarrizko eskubiderik gabe geratzeko aitzakia:

«Sareek baliabide eta laguntza guztiak ezagutzen dituzte. Lan egin beharko litzateke, laguntzak nola esleitzen diren ikusi. Baina beldur-rarengatik ezin daitezke eskubiderik gabe geratu» (Munduko Medikuek).

4.3.- Baliabideen malgutasuna eta baliabideak gizakien salerosketaren biktimen edo hortik bizirik irtendakoen premietara moldatzea

Gizakien salerosketaren biktimentzako edota hortik bizirik irtendakoentzako prozesuetan eta programetan malgutasun eta moldagarritasun handiagoak behar direla uste dute entitateek. Artatzen diren emakumeen premietara, ezaugarrietara eta eskaeretara egokituta dagoen eta pertsonengan zentratutako genero-ikuspegitik abiatzen den zerbitzu eta baliabiderik ez dagoela hautematen dute. Entitateek adierazi dutenez, baliabideak eta programak aipatutako premietara begira diseinatzen eta egokitzen ez bada, denboran eta eraginkortasunean irismen laburra izango dute:

«Haien premiekin bat egiten duten aukerak eskaini beharko lirateke, gauzak erraz jarri. Mugek, betekizunek eta eskakizunek talka egiten dute pertsonen premiekin; askotan, zaurgarrienen beharrekin» (CEAR Euskadi).

Bizitegi-baliabideak dira horren adibidea: emakumeei eskaintzen zaizkien zerbitzu nagusietako bat dira, baina, askotan, ez dira emakumeen premietara edo ezaugarrietara egokitzen; esaterako, seme-alabak ardurapean dauzkaten emakumeen kasuan. Gainera, ez dago bizitegi-baliabideentzako alternatibarik. Askabidek, adibidez, diru-laguntzak edo etxebizitza independentea edukitzeko estaldura proposatzen ditu; Gurutze Gorriak, berriz, gizarteratzeko prozesuak lantzeko zentroak aipatu ditu, bizitegi-baliabideetatik kanpoak.

«Biktima guztiek ez dituzte bizitegi-proiektuak onartzen. Honetan pentsatzen dugu: sarea desegin – biktimak – bizitegi-proiektua. Eta ez da beti horrela gertatzen. Bizitegi-proiektua onartzen ez dute-nean, ez dute beste aukerarik edukitzen» (Ahizpa Oblatuak).

«Bestelako bititoki- edo etxebizitza-estaldura eskatzen dute. Emakume batzuek ez dute aukera hori nahi izaten; modu independentean bititzea eskatzen dute, baina ez dute nola ordaindu» (Askabide).

«Haiekin batera gizarteratzea lantzeko zentroak egon beharko lirateke, nahitaez bizitegi-baliabideak izan beharrik gabe. Haien etxea bilatu eta eduki ahal izateko baliabideak eman beharko genizkieke» (Gurutze Gorria).

Zentzu horretan, entitateek garrantzitsu ikusten dute ohiko bizitegi-baliabideak ez diren aukerak esploratzea, emakume askori prozesua kaltetzen baitie beste biktima batzuekin egoteak, ez dielako biktimizazioaren mundu horretatik irtetea ahalbidetzen:

«Emakume askok, hausnarketa-aldi horretan, ez dute gizakien salerosketaren biktimentzako pisu batean egon nahi izaten. Bizitza ahalik eta normalena egin nahi baduzu eta oinarrizko errenta jaso ahal baduzu, zeure etxea eduki dezakezu, bizitegi-baliabide batera biktima gisa sartu eta guztia biktima izatearen inguruan eraiki ordez» (Munduko Medikak).

Era berean, adingabeak ardurapean dauzkaten emakumeek oso auke-

ra mugatuak dauzkate, inguruabar horietan dauden emakumeak gero eta gehiago izan arren⁶ oso bizitegi-baliabide gutxitan egon daitezkeelako amak seme-alabekin batera. Bada, gizarte-entitateek adingabeekin dauden emakumeak harreran hartzeko baliabideak behar direla adierazi dute.

Adingabeei dagokienez, gizakien salerosketaren zuzeneko haur biktimei eta emakume biktimen seme-alabei ematen zaien arretaren inguruan hausnartu beharra dago. Save the Children Euskadi erakundeak zehaztu duenez, ezin daiteke ukatu zaurgarritasun bereziko kolektiboa dela eta arreta nahiz babes bereziak behar dituela. Hala, ezinbestekoa da adingabeen eskubideen inguruko ikuspegia edukitzea:

«Haurren kolektibo zaurgarriak babes berezia behar du, zuzeneko biktimak izan edo zuzeneko biktimen seme-alabak izan gorabehera. Adibidez, adingabeak ardurapean dauzkaten biktimentzat egokiak diren zerbitzuak egon beharko lirатеke. Adingabeak amarekin egon ahal izatea babes- eta eskubide-kontua da» (Save the Children Euskadi).

Gaur egun dauden egoitza-aukerak zabaltzeaz ez ezik, baliabide instituzionalen eta administrazio-prozesuen zurruntasuna deuseztatzeko premia ere hitz egin dute. Esate baterako, Askabiden azaldu digutenez, bizitegi-baliabideetan ezarrita dauden egonaldiak oso laburrak dira (sei hilabetekoak), eta ez dute errealitatearekin bat egiten, emakumearen egoera eta emakume horrek irekita dauzkan fronte-kopurua aintzat hartuz gero. Emakumeek zentroetan egiten duten egonaldia hain azkar eta presaka amaitzen da, ezen, askotan, prozesua eteten da, eta ez da amaitzen. Prozesuetarako denborak hain mugatuta egotea oztopo bat da, gogoan izan behar baita pertsona bakoitzak inguruabar eta erritmo erabat ezberdinak dituela:

«Egonaldi luzeagoa eskatzen dute, gizarteratzeko eta lana bilatzeko edo prestakuntza hobetzeko proiektuarekin jarraitu ahal izateko. Hortaz, bizitegi-baliabideko egonaldian luzaroago jarraitu ahal izatea bermatu behar dute erakundeek, eta malgutasuna eman, denbora hain zehatzik (adibidez, sei hilabete) ezarri gabe, ezin izaten baita prozesua amaitu» (Askabide).

6: Gizakien salerosketaren emakume biktima artuta gehienak ardurapean adingaberik ez duten emakume helduak izaten badira ere, elkarriketatutako erakundeek adierazi dute ardurapean haurrak dauzkaten gero eta emakume gehiago iristen direla. Adingabe horiek linbo administratibo batean geratzen dira, ez.

lido berean, zentroetan eta bizitegi-baliabideetan onartzeko edo horietara sartzeko eskakizunak eta betekizunak daude, oso aukera gutxirekin uzten baitituzte emakume asko eta asko. Munduko Medikuek azaldu dutenez, substantziarik ez hartzeko arauak emakume bat baliabide batean ez onartzea eragin dezake, eta, horrekin, esku-hartze sozialeko prozesu batera sartzeko aukera oro ukatzen zaio:

«Pisu batzuetan, emakumeei ez zaie drogak hartzea uzten. Gizakien salerosketaren biktima batzuk drogak hartzera behartu dituzte, eta gaur kontsumitzaileak dira. Eta ez daukate pisura sartzeko eskubiderik, drogak hartzen ari direlako» (Munduko Medikuek).

Bestalde, administrazioaren zurruntasuna eta zerbitzu batzuen batearazintasuna dira lerro honetan jorratu beharreko beste kontu funtsezko bat, Save the Children Euskadi erakundeak adierazi duen moduan. Izapide batzuk (adibidez, Bilbon errolda eskatzea) ezin konpondu izateak izapide burokratiko eta administratiboan hurrengo kate-begira ez iristea eragiten du:

«Lanaren gaur egungo planteamendua dela-eta, administrazioa zurrunda da, eta zerbitzu batzuek ez dute bat egiten oinarrizko babes-premiarekin» (Save the Children Euskadi).

«Errolda aldatzeko gaiarekin presioa sartu behar da, gauzak erraztu nahi badira. Ezin liteke penintsulara pateraz sartzen diren pertsonak Bilbon erroldatzeko aukerarik ez edukitzea inoiz. Alternatibaren bat eduki behar dugu. Gai burokratiko batek atea ixten dio jendearen bizitzari» (Gurutze Gorria).

Hiesaren Aurkako Batzordearen hitzetan, gauza bera gertatzen da beste laguntza edo izapide batzuekin; adibidez, diru-sarrerak bermatzeko errentarekin edo asiloa eskatzeko prozedurekin. Horren ondorioz, emakume horien gizarteratze-prozesua moteldu egiten da, eta, are, baita gelditu ere:

«Politika malguagoi bide eman behar zaie, diru-sarrerak bermatzeko errentarekin adibidez, emakume horiek sarbidea izan dezaten. Gainera, gizakien salerosketaren emakume biktimentzako nazioarteko babesa aplikatzea bermatu behar da, kanporatu ez ditzaten» (Hiesaren Aurkako Batzordea).

Hortaz, emakumeak erdigunean jarriz jorratu behar dira prozesuak, malgutasun eta indibidualtasun handiagoarekin, eta, bestetik, ikuspegi intersektionaletik artatu behar dira emakumeak, haien askatasuna eta autonomia errespetatuz, bidelaguntza oso-oso eman nahi bazaie:

«Garrantzitsua da egiten den lanaren erdigunean gizakien salerosketaren emakume biktima egotea» (Save the Children Euskadi).

«Malgutasun handiagoz jokatu beharko litzateke emakumeentzako baliabideetan. Askatasuna eta autonomia errespetatuko dituzten bizitegi-baliabideak eskaini beharko lirateke, eta, oro har, gizarteratze-prozesuak malgotu» (Hiesaren Aurkako Batzordea).

5.- Eskumenen banaketa argia eta sareko lana

Gizakien salerosketaren emakume biktimen eta haien seme-alabekin lan egiten duten profesionalen ustean, erakunde publikoen eskumenak hobeto eta argiago banatuko balira, koordinazioa eta sareko lana hobetuko lirateke:

«Eskumenak modu argiagoan banatu behar dira. Sistemaren konplexutasuna dela-eta, zailtasun eta mugaketa asko daude» (CEAR Euskadi).

«Euskadiko eta Bizkaiko lan-eremuan, lehendabizi, eginkizunak argi eta zehatz-mehatz banatu behar dira: bakoitzaren eskumenak zehaztu behar dira, eta koordinatuta egin behar dugu lan» (Askabide).

Sistemaren konplexutasunak zailtasun eta mugaketa asko eragiten ditu lan egiteko orduan. Gizakien salerosketaren arloan, eskumenak ez daude argi banatuta, eta horrek ardurak eta baliabideak antolatzea zailtzen du, emakumeak deribatzea eta baliabideetara sartzea oztopatzen du, eta komunikazio-arintasuna urritzen du.

Gizarte-eragileen iritziz, eskumenen banaketa argi eta praktikoa behar da, zerbitzuen zorroan islatuta geratuko dena eta,aldi berean, egia bihurtuko dena, bai baliabideak jarriz, bai antolaketa erraztuz, bai gizakien salerosketaren arloko lanean esku hartzen duten askotariko gizarte-eragileen arteko komunikazioa arinduz. Save the Children Euskadik azaldu duenez, esku-hartzearen mailak argiago banatuko balira, bidelaguntza hobea eskainiko litzateke pertsoneri:

«Garrantzitsua litzateke lan-mailak edo -esferak bereiztea. Erakundeek biktimarengan zentraturiko lan-ikuspegia izan dezaten, berrantolatatu egin behar dute» (Save the Children Euskadi).

Sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktimekin lan egiten duten askotariko gizarte-eragileen artean koordinatzea eta komunikatzea (hots, sareko lana) ezinbestekoa da entitateentzat, emaitzak emango dituen lan optimoa lortu nahi bada:

«Garrantzitsua eta ezinbestekoa da askotariko gizarte-eragileen artean koordinatzea eta konfiantza egotea; hots, ezagutza eta aitortza egotea» (CEAR Euskadi).

Sareko lan hori hainbat mailatan gauzatu behar dela ikusi da: entitateen artean, erakundeen artean eta polizia-indarrekin batera.

5.1.- Entitateen artean

CEAR Euskadik azaldu duen moduan, gizakien salerosketaren eremua hain da konplexua, ezen, eguneroko lanari eusteko, ia-ia derrigorrezkoa baita antolakundeen artean koordinatzea eta antolatzea. Elkartzeko eta hartu-emanetarako guneak aukera baliagarri eta onuragarriak dira:

«Jarduteko zailtasun handiak dauzkagu. Gero eta informazio gehiago daukagu gizakien salerosketari buruz, baina ez gaude oso antolatuta. Nork bere lan-xedea dauka, guztion artean antolatu gabe. Elkartzeko, hartu-emanetarako eta lan egiteko guneak prestatu behar ditugu» (CEAR Euskadi).

Profesional guztiek bat egin dute esatean eremuko entitateen artean komunikazio ona edukitzeak ondorio ona edukiko duela emakumeen kasuak eta prozesuak jorratzeko garaian. Ahizpa Oblatuek esan duten bezala, sareko lana funtsezkoa da egunerokotasunean, bai laguntza jasotzeko, bai entitateak berak ez dauzkan baliabideak eta hurbilketak edukitzeko:

«Beste antolakunde batzuekin koordinatu behar dugu, eta haiekin lankidetzan aritu. Jarduteko eta esku hartzeko ereduak trukatu behar ditugu. Gu antzeko entitateekin aritzen gara sareko lanean. Gure asmoa ez da baliabide espezifikoak sortzea, horiek integratzea baizik. Beraz, gauza batzuetarako, beste entitate batzuetara deribatzen ditugu» (Ahizpa Oblatuak).

5.2.- Erakundeen artean

Gizarte-entitateen eta antolakundeen koordinazioaz gain, gobernu zentralaren eta autonomikoaren erakundeen artean ere barne-komunikazio arin eta etengabea edukitzea oso garrantzitsua dela adierazi dute:

«Koordinatzeko, Foru Aldundiak gehiago hitz egin behar du Eusko Jaurlaritzarekin eta gobernu zentralarekin. Horixe da prozesuei laguntzeko modua» (CEAR Euskadi).

«Erakundeen barruan sarean lan egin behar dela azpimarratzen dugu. Sarean egin behar da lan, ildo berean. Eta garrantzitsua da erakundeak barne-mailan komunikatzea» (Munduko Medikuek)

Gurutze Gorria eta Munduko Medikuek erakundeen ustez, adibidez, gizakien salerosketaren sareak eta biktimak beraiek toki batetik bestera etengabe mugitzen direnez, ezinbestekoa da beste puntu geografiko batzuetan dauden gizarte-eragile eta erakundeekin komunikatu eta koordinatzea:

«Koordinazio-lanak egon behar du, maila guztietan; adibidez, Frantziarekin (noiz iristen diren jakiteko), nazioarteko gizarte-zerbitzuekin edo emakume horien prozesuan parte hartzen duen ororekin» (Gurutze Gorria).

«Espainiako beste toki batzuetako Munduko Medikuekin sarean egingen dugu lan. Eta kasu komun jarraipena egin dezakegu, baita detekzioak egitean ere» (Munduko Medikuek).

Azken batean, maila guzti-guztietan behar da koordinazioa. Zentzu horretan, CEAR Euskadik nabarmendu duenez, oso garrantzitsua da polizia-indarrak beste erakunde batzuekin komunikatzea (hala nola, asilo- eta aterpe-bulegoarekin), norabide berean lan egin eta biktimei haien eskubideei buruzko informazio guztia eskaini ahal izateko:

«Garrantzitsua da, halaber, polizia-kidegoen eta asilo- eta aterpe-bulegoaren artean komunikazio eta koordinazio hobek egotea» (CEAR Euskadi).

5.3.- Entitateen eta polizia-indarren artean

Erakunde guztiek babesten dute poliziaren lana, baina lan-eremu horrekin gehiago koordinatu eta komunikatu behar dutela uste dute. Nahitaezkoa da gizarte-entitateen eta segurtasun-kidegoen artean sareko

lana eta komunikazio etengabea egotea, Save the Children Euskadiren hitzetan ikus daitekeen moduan, elkar ulertzera eta konfiantzan oinarrituriko lankidetzaz sortzera iristeko xedez:

«Estatuko segurtasun-indar eta kidegoen, gizarte-entitateen eta administrazio publikoen arteko koordinazioa eta komunikazioa behar dira. Koordinatzeko eta informazioa trukatzeko guneak sortu behar dira: elkar ulertu behar dute, eta elkarrenganako konfiantza izan» (Save the Children Euskadi).

Bestetik, emakumeek ez dute polizia beti babestzat jotzen. Zentzu horretan, Hiesaren Aurkako Batzordeak adierazi duenaren arabera, gizarte-entitateek, emakumeekin hurbileko lana egiten dutenez, bi-tartekari gisa jardun dezakete:

«Poliziaren presentziarekin kontuz ibili behar da, edo behar bezala azaldu behar zaie zein eginkizun duten. Seguru asko, babesa emateko daude, baina, emakumeen begietan, atzerritarrek atzemateko poliziak dira, eta, ondorioz, ez dira kalera ateratzen, gehienak atzerritarrek direlako» (Hiesaren Aurkako Batzordea).

6.- Profesionalei ematen zaien laguntza eta haien zaintza

Gizakien salerosketaren biktimekin esku hartzen duten gizarte-entitateen «identifikazioek», oro har, ez dute legitimaziorik edukitzen, eta, hortaz, indarkeriatik aldentzeko prozesuetan artatzen dituzten emakumeentzako eskubideak ez dira aitortzen. Zentzu horretan, bi muga identifikatzen dituzte haien lanean: batetik, ez da bermatzen salaketa jartzeko emakumeak babestuko direnik, eta, bestetik, lehenengoaren ondorioz, gatazka etikoak sortzen dira kasu batzuetan jarduteko orduan. Hori dela-eta, gizarte-entitateek honako hau salatzen dute:

6.1.- Emakumeen salaketa-prozesuetan ez da babesa bermatzen

Kasuak konplexuak izaten direnez eta salaketa-prozesuetan nahiz horien ondoren emakumeen babesa bermatzen ez denez, profesionalak ez dira seguru sentitzen emakumeak orientatzeko eta haiei laguntzeko orduan:

«Ezjakintasun handia dago. Ez dakigu salatzean edo informatzean arrisku handiagoan jartzen ditugun. Askotan, ez dugu nola jardun behar dugun jakiten; izan ere, konfesatzen badute, ez da gauza handirik gertatzen, eta, zantzuak ikusten baditugu, ez dakigu arrisku handiagoan jartzen ote ditugun» (CEAR Euskadi).

Hala, zalantza hau oso hedatuta dago profesionalen artean: ez dakite zer gerta daitekeen salaketaren ostean, ez eta salatzeak berak benetan zein ondorio ekar dakizkiokeen emakumeari edota bere babes osoa bermatzen den ere. Gainera, Gurutze Gorriak azaldu duenez, salaketek ez dute emaitza onik ematen, eta ez dute haien egoera konpontzen. Horren aurrean, nahasmendu handia dago emakumeak orientatu eta haiei laguntzeko orduan:

«Salaketak ez dira konponbidea izaten ari. Ez dute ezertarako balio; ez dute emaitza onik ematen emakumeentzat» (Gurutze Gorria).

Hori dela-eta, gizarte-entitateek uste dute tarteko urrats batek egon beharko lukeela haiek hautematen dituzten zantzuen eta poliziaren identifikazio-fasearen artean: detekzio espezializatua⁷. Hau da, identifikazio-lana aurretik landu behar da, pertsonak argi izan behar baitu zer irabaziko duen eta zer galdu. Horrela, albo-kalteak saihestuko dira, Hiesaren Aurkako Batzordeak dioen moduan:

«Salatzean dauden arriskuei buruzko ebaluazioa egin beharko litzaiteke, salatzeak zer ekar dezakeen jakiteko eta neurria emakumearen kontrakoa izatea saihesteko; hots, albo-kalteak saihesteko» (Hiesaren Aurkako Batzordea).

6.2.- Gizakien salerosketaren biktimekin lan egitean sor litezkeen gatazka etikoak

Gizarte-entitateek artatzen dituzten pertsonetikiko konfiantza eta lotura, asko-askotan, hasieratik bertatik eskaintzen zaien konfidentzialtasun-bermean oinarritzen dira. Zenbaitetan, ordea, gatazka etikoak sortzen dira konfidentzialtasunaren eta egoera jakin batzuen berri emateko betebeharraren artean. Entitateentzat (hala nola, Askabiderentzat) poliziarekin koordinatzeko lana funtsezkoa den arren, garrantzitsu ikusten dute segurtasun-indarren eta haien lanaren artean mugak ezartzea:

«Konfiantzazko harremana ziurtatzeko, konfidentzialtasuna ziurtatu behar duzu. Gurekin harremanetan dauden pertsonen baimena lortu behar da, poliziari haien egoerari buruzko informazioa emateko. Eta ez da beti erraza izaten». (Askabide).

7: *Kataluniako Sifar Cat-eko Rosa Cendonek proposatu zuen detekzio espezializatua, CEAR Euskadik gizakien salerosketaren biktimekin bidelaguntza-arloko jarduerak trukatzeari buruz 2017ko abenduan antolatutako jardunaldietan.*

Zentzu horretan, Ahizpa Oblatuak entitatearen ustez, poliziarekin lan egin behar da, eta lankidetzan aritu, «elkarrekin baina ez nahastuta» eta gizarte-entitateen lanaren xedea argi edukiz. Izan ere, lan horren xedea ez da gizakien salerosketaren biktimak detektatzea, baizik eta emakumeei bizitako esperientziatik gizarteratzeko prozesuan laguntzea, errespetuan oinarrituta lagundu ere, eta hartzen dituzten erabakien protagonistak haiek izan daitezela sustatzea:

«Emakumeen erabakia errespetatu behar da, gustatu ala ez. Xedea ez da biktimak detektatzea, emakumeak gertatu zaiena hitzez adierazteko gai izatea eta egoera traumatiko hori onartu ahal izatea baizik» (Ahizpa Oblatuak).

CEAR Euskadiko langileen hitzetan, garrantzitsua da gizakien salerosketaren biktimei edota hortik bizirik irtendakoei beren premiaren arabera laguntzearen eta informatzeko betebeharraren arteko oreka topatzea:

«Askotan, zailtasun bat edukitzen dugu: biktimak premiarik sentitzen ez badu, premiaren arabera jardun behar da? Ezer egiten ez badugu, sareari zeharka laguntzen ari gara? Garrantzitsua da oreka aurkitzea. Zantzuak ikusten baditugu, horren berri eman behar dugu? Protokoloak baietz dio» (CEAR Euskadi).

Artatzen dituzten pertsonak salerosten dituzten mafiei eta sareei zeharka laguntzen ari zaiela sentitzea ere zaila da profesionalentzat. Entitateen ustez, biktimek baliabideak eta diru-laguntzak jaso ahal izatea eskubidea da. Hala ere, era berean, kontua bi ahoko ezpata dela uste dute, sareek beraiek gizarte-entitateen baliabideak erabiltzen dituztelako beren onurarako, atzemate-toki gisa.

Hots, mafiek haien mesederako erabiltzen dituzte zentroak. Sareek baliabideak eta antolakundeak ezagutzen dituzte, eta haien onurarako erabiltzen. Emakume batzuk Bilboko pisuetako hezitzaile bate izenarekin iristen dira mugatik» (Gurutze Gorria).

Bestalde, badago beste zalantzarik ere: baliabideak eta diru-laguntzak jasotzea emakumeen eskubidea den arren, baliteke sareak izatea neurri horien onuradun; izan ere, entitateek dioten bezala, sareak beti doaz entitateen aurretik. Zentzu horretan, Munduko Medikuek uste dutenez, garrantzitsua da eskubideen ikuspegia kontuan hartzea, balitekeelako emakumeak eskubiderik gabe uztea, sareak biktimentzako laguntzez eta

baliabideez baliatuko ote diren beldurraren ondorioz:

«Sareek baliabide eta laguntza guztiak ezagutzen dituzte. Lan egin beharko litzateke, laguntzak nola esleitzen diren ikusi. Baina beldur-rarengatik ezin daitezke eskubiderik gabe geratu» (Munduko Medikak).

6.3.-Aholkularitza- eta informazio-zerbitzu bat

Aurrekoaren harira, erakundeek ondo eta baliagarri ikusten dute gizakien salerosketaren biktimekin lan egiten duten profesionalentzako informazio- eta aholkularitza-zerbitzua edukitzea, bertara jo dezaten eguneroko lanean sor dakiekeen edozein kontu argitu nahi duten aldiro.

Hala, prestakuntza, informazio eta bidelaguntza etengabeak dauzkatela jakinda, seguruago eta babestuago sentituko dira emakumeekin egiten duten lanean, eta horrek mesede egingo dio prozesuari, Hiesaren Aurkako Batzordeak adierazi duen bezala:

«Oso baliagarria litzateke profesionalentzako aholkularitza- eta informazio-zerbitzua edukitzea. Profesionalek babestuta eta ziur sentitu behar dute, eta nola jardun eta esku hartu jakin. Hau da, informazio argia behar dute» (Hiesaren Aurkako Batzordea).

Sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktimekin egiten den lana ez da erraza; konplexua da, baina ez horregatik zaila edo korapilatsua, Ahizpa Oblatuek dioten moduan:

«Sexu-esplotaziorako gizakien salerosketa konplexua da, baina ez korapilatsua edo zaila. Konplexutasun hori erronka bat da, ez zailtasuna» (Ahizpa Oblatuak).

Azken batean, laguntzea eta indarkeria-egoera hausteko gaitasunak indartuko dituzten hausnarketa- eta laguntza-tresnak nahiz baliabideak ematea da lanbidearen funtsa. Izan ere, honako hau izaten da entitateek duten zailtasun nagusietako bat: Nola egin lan gizakien salerosketaren biktimekin, haien beldurra hemen ez dagoenean?. Gizakien salerosketaren emakume biktimek, sarritan, badakite zer-nolako kostuak ekar litzakeen saretik bereizteak. Beraz, ibilbide pertsonal zailak izaten dira, bai haien eta familien segurtasunari begiratuta, bai bizitako indarkeriak eta sortutako zorrak eragindako mendekotasunaren hausturari begiratuta. Zentzu horretan, emakumeak jasandako indarkeriak ikusgarri egiten

hasi eta indarkeria horiengandik bereizteko erabakiak hartu ahal izateko aukerak onartzen hasi ahal izan daitezten laguntzean zentratzen da, oro har, gizarte-entitateen lana.

BALIABIDEEN GIDA

AHIZPA OBLATUAK

Esku-hartzea

- «LEIHO ZABALIK» BIZITEGI-BALIABIDEA

Sei tokiko harrera-pisua da, eta prostituzioan aritzen diren eta beste-lako aukera soziorabonal bat eskatzen duten emakumeei nahiz sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren emakume biktimei zuzenduta dago. Emakumeak hartzea eta gizarteratzen eta laneratzen laguntzea da baliabide honen xedea.

- LANDA-LANA

Prostituzioan aritzen diren tokietarako irteerak egiten dira, Gizarterako elkartearekin koordinatuta, Gasteizen.

Prebentzioa eta sentsibilizazioa

Prebentzio- eta sentsibilizazio-lanak egiten dituzte; batetik, prostituzioan aritzen diren emakumeak edota sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktimek babesten laguntzeko eta herritarren oinarrizko eskubideetarako sarbidea eduki dezaten laguntzeko, eta, bestetik, haien egoera ikusgarri egiteko. Azken xede horri begira, haien errealitatearen berri ematen diote gizarteari, prostituzioarekiko eta sexu-esplotaziorako gizakien salerosketarekiko pentsamendu kritikoa sortze aldera.

Harremanetarako

San Frantzisko kalea 25, behea, 48003 Bilbo.

660 92 68 70

oblatasleihoz@telefonica.net

www.oblatas.com

ASKABIDE

Esku-hartzea

- SEXU-ESPLOTAZIORAKO GIZAKIEN SALEROSKETAREN BIKTIMEKIN ESKU HARTZE INTEGRALA EGITEKO PLANA

Programa honetan, honako hauek daude:

- Sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktima diren emakume-entzako bi bizitegi-toki, entitatearen baliabide batean.
- Sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktima diren emakumeei bizitegikoa ez den «arreta integrala» emateko programa. Arreta horrek aholkularitza- eta bidelaguntza-zerbitzua eskaintzen die bizitegi-baliabidean sartzea eskatzen ez duten edo bizitegiko egonaldia amaitu ondoren suspertze-prozesua maila anbulatorioan jarraitu nahi duten biktimei.
- 24 orduko telefono-zerbitzua, sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktimekin zerikusia daukaten eskaera guztiei arreta ematekoa, bai gizakien salerosketaren estatu-mailako sareari buruzko informazioa eskatzeko, bai elkarteko programa eta zerbitzuei buruzko informazioa eskatzeko.

- BIZITEGI-BALIABIDEA: CASA HOGAR (ez da sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktimeztat espezifikoa)

Sei tokiko proiektu sozio-hezitzailea da. Bertan, egoitzako harrera eskaintzen zaie lanbide gisa prostituzioan aritu diren eta zaurgarritasun-egoera dela-eta bazterketarako arrisku larrian dauden emakumeei, erdi-tutoretzapean, gizarteratzeko fasean.

- KLUBETAN, PISUETAN ETA KALEAN SEXU-ESPLOTAZIORAKO GIZAKIEN SALEROSKETAREN BIKTIMAK PREBENITZEKO, DETEKTATZEKO ETA IDENTIFIKATZEKO PROGRAMA

Programa hau egiteko, entitatean egiten den landa-lanaz baliatzen gara, eta prostituzio-jarduera egiten den tokietan (klubetan, pisuetan eta kalean) prostituzioan aritzen diren pertsonengana hurbiltzeko eta haiekin harremanetan egoteko lana egiten den.

Prebentzioa eta sentsibilizazioa

- SEXU-ESPLOTAZIORAKO GIZAKIEN SALEROSKETAREN BIKTIMEKIN ESKU HARTZE INTEGRALA EGITEKO PROGRAMA

- Espainiako sexu-esplotaziorako gizakien salerosketa-sareari buruzko jardunaldietan, lanerako mahaietan eta ikerketetan parte hartzen dugu.
- Gizakien salerosketaren arloan trebatzen ditugu polizia-kidegoak eta hirugarren sektoreko entitateak.

Harremanetarako

Amparo kalea 1, lonja, 48003 Bilbo.

944164828

asociacionaskabide@gmail.com

www.askabide.org

HIESAREN AURKAKO BIZKAIKO HERRI BATZORDEA. BIZKAISIDA

Esku-hartzea

- PREBENTZIO ETA BIDELAGUNTZA SOZIOSANITARIORAKO PROGRAMA, PROSTITUZIOAN ARITZEN DIRENEI ZUZENDURIKOA

Programa prostituzioan aritzen direnei (emakumeei, gizonei eta transei) zuzenduta dago, eta Bizkaiko Hiesaren Aurkako Batzordeak 1989tik garatzen du. Sexu-arloko transakzioen testuingurua (pisuak, klubak eta kaleko eremu batzuk) eta prostituzioan egiten diren praktika espezifikoak ezagutzen ditugunez, GIBaren eta sexu-transmisiozko beste infekzio batzuen transmisioa prebenitzea da xede nagusia.

Harremanetarako

Maiatzaren biko kalea 6, 1. ezk, 48003 Bilbo

667 249 603/ 944795779

mujer@bizkaisida.com / consultas@bizkaisida.com

www.bizkaisida.com

GURUTZE GORRIA

Esku-hartzea

- ARDURAPEAN ADINGABEAK EDUKI ALA EZ ITSASARTETIK IRITSI BERRI DIREN EMAKUMEEI LAGUNTZA HUMANITARIOA EMATEKO PROGRAMA

28 tokiko bizitegi-baliabidea da, itsasartetik iritsi berri diren emakumeei eta haien ardurapeko adingabeei zuzendurikoa. Plaza horiek 8 tokiko pisu batean eta 20 toki dauzkan 24 orduko arreta-zentro batean banatuta daude, eta bakarrik dauden edo ardurapean adingabeak dauzkaten, muturreko zaurgarritasun-egoeran dauden eta kostaldeetara iristen diren edo egonlekuetan dauden emakumeei bideratuta daude. Azken hori gizakien salerosketaren behatokitizat har liteke, eta diziplina anitzeko ikuspegiarekin egiten da lan.

Programa honetan, harreraz, ibilbide osoko bidelaguntza pertsonalizatuaz, lege-aholkularitzaz eta inguruko hainbat entitate eta baliabiderek koordinatutako lanaz gain, tailerrak eta jarduerak eskaintzen zaizkie: gaztelania ikasteko eta alfabetatzeko eskolak, garbiketa-tailerra eta enplegurako

tresnak, aisialdiko jarduerak asteburuetan eta baratze- eta lorategi-tailerra.

Prebentzioa eta sentsibilizazioa

Gurutze Gorriak informatzeko eta sentsibilizatzeko hainbat ekintza egi-ten ditu: giza eskubideei eta haurren eskubideei buruzko heziketa, kul-turarteko heziketa, genero-indarkeriaren sentsibilizazioa eta prebentzioa eta heziketa afektibo-sexuala, besteren artean. Era berean, asiloari eta gizakien salerosketari buruzko tailerrak egi-ten dira aldizka.

Harremanetarako

Jose Maria Olabarri kalea 6, 48001 Bilbo

944239359

www.cruzrojabizkaia.org

SAVE THE CHILDREN EUSKADI

Prebentzioa eta sentsibilizazioa

- ERAGIN POLITIKOA

Agenda politikoan eta erabakiak hartzeko prozesuan eragin nahi du, haur guztientzako aldaketak eta hobekuntzak lortzeari begira. Horretarako, gobernuetan eta tokiko nahiz estatuko erakundeetan eragiten du, hau-rrak babesteko, haien iritzia kontuan hartuko duten sistemak indartzeko eta, horrela, haurren kontrako indarkeria mota guztiak (hala nola, giza-kien salerosketa) prebenitu eta amaiarazteko xedez.

Harremanetarako

Hurtado de Amezaga kalea 20, 5-A, 48008 Bilbo

946620109 / 945134368

euskadi@savethechildren.org

www.savethechildren.es

CEAR - Euskadi

Esku-hartzea

CEAR-Euskadik errefuxiatuen, asilo-eskatzaileen, herrigabeen eta migrat-zaile zaugarrien edo gizarte-bazterketarako arriskuan dauden migrat-zaileen eskubideak eta garapen oso-osoa defendatzen eta sustatzen ditu.

Arreta eta zaintza

- Pertsonen harrera
- Arreta juridikoa
- Arreta psikologikoa
- Arreta soziala

- Lanerako prestakuntza eta orientazioa

Prebentzioa eta sentsibilizazioa

- Giza eskubideen defentsa
- Behartutako lekualdaketen ikerketa eta salaketa
- Eragin politikoa eta sentsibilizazioa, asilorako eskubidea defendatzeko, arreta berezia jarriz generoagatiko jazarpenari
- Giza eskubideen defendatzaileen babes
- Parte-hartze soziala
- Kulturarteko bizikidetzaren sustapena

Harremanetarako

Kristo kalea 9-B, 5. solairua. 48007 Bilbo

94 424 88 44

info@cear-euskadi.org

www.cear-euskadi.org

MUNDUKO MEDIKUAK

Prebentzioa eta sentsibilizazioa

Munduko Medikiak entitateak gizakien salerosketaren arloan lan egiten duen talde boluntarioa dauka, prebentzian eta sentsibilizazioan nahiz gizarte-, osasun- eta hezkuntza-eremuen prestakuntzan aritzen dena. Honako hauek dira arlo horretan egiten dituzten ekintzak:

- «Sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktimak identifikatu eta deribatzeke nahiz informazioa eta lekukotzak jasotzeko barne-mailako eskuliburua» 2009an
- Argazki-erakusketak eta bisita gidatuak
- Hitzaldiak, mahai-inguruak eta bideo-forumak
- Antzerkia
- Emakunderen 2017ko jardunaldiak: «Pertsonen salerosketa. Ikaskuntza eta erantzukizunak»
- Gizakien beste salerosketa mota batzuen inguruan informatu eta horiek ezagutarazi (laneko esplotazioa, ezkontza behartuak eta abar)
- Eragin politikoa

Harremanetarako

Bailen kalea 1, behea, 48003 Bilbo.

944790322

euskadi@medicosdelmundo.org

www.medicosdelmundo.org

GAIA: SEXU USTIAPENA HELBURU DUEN SALEROSKETAREN BIKTIMEN ETA BIZIRAULEEN ALDEKO ESKU- HARTZE SOZIALERAKO BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN PLANA (2019-2021) ONESTEA

Gizakien salerosketa delitu guztiz gaitzesgarria da, eta giza eskubideen urratze izugarri larria.

Salerosketa ezkutuko fenomenoak izan da eta gaur egun ere lan egin beharra daukagu agerian jartzeko nazioarteko, nazioarteko eta tokiko errealitate hori, pertsonen askatasunei eta duintasunei erasaten diena, batez ere emakumeen kalterako.

Europako araudiak eta nazioarteko estandarrek botere publikoen betebeharrak ezartzen dituzte salerosketaren prebentzioari dagokionez eta, halaber, biktimen giza eskubideak bermatzeko erantzukizunei dagokienez.

Nazioarteko arau-esparruak emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpenzat jotzen ditu emakumeen salerosketa eta prostituzioaren ustiapena, generoan oinarrituta daudelako.

Emakumeen kontrako diskriminazioa ezabatzeko Batzordea (CEDAW, ingelesezko siglez) aditu independenteek osatutako organo bat da, emakumeen kontrako diskriminazio mota guztiak ezabatzeko Konbentzioaren aplikazioa gainbegiratzen duena.

Honako hau ezartzen du CEDAWen 6. artikulua:

Partaide diren estatuek behar diren neurri guztiak hartuko dituzte, legegintzakoak ere barne, emakumeen salerosketa modu guztiak eta emakumeen prostituzioaren ustiapen modu guztiak ezabatzeko.

Azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta haren lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzkoak, lurralde historikoei esleitzen die, bakoitzari bere lurraldean, erakunde erkideen legeria betearazteko eskumena, gizarte laguntzari, garapen komunitarioari, emakumeen egoerari eta horrelako gaii dagokienez. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 30. artikulua foru aldundietako gizarte zerbitzuen eskumenak ezartzen ditu, eta lege testu beraren 41. artikulua gizarte zerbitzuen arloko zenbait eskumen ematen dizkie foru aldundiei. Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak foru aldundiei eskumena esleitzen die, besteak beste, bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarritzko gizarte eskubideetarako sarbidea izan dezaten programa edo zerbitzuak emateko, zerbitzuon izaera dela-eta udalez gainera eman beharrekoak direnean (6. artikuluko i letra).

Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 26ko 6/2016 Foru Dekretuak, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren erregelamendu organikoa onesten duenak, 26.u) artikuluan ezartzen duenez, Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitaterako Zuzendaritza Nagusiko Berdintasunerako eta Dibertsitaterako Arloari dagozkio honako eginkizun hauek:

u) Berdintasunerako planak zein programak egitea bultzatzea, sentsibilizazio-proiektuen bidez, bai eta honako hauek sustatzea ere: genero-berdintasunaren aldeko ekintzak, berdintasunerako politika foralak gauzatzeko ekintzak (bereziki, sentsibilizazioaren arlokoak), genero-ikuspegia kontuan hartzea, emakumeen aurkako indarkeriaren arazoari buruzko publikitate-kanpainak, erantzukidetasuna, lanaren eta familiaren uztartzea eta emakumeak bizitzaren arlo guztietan ahalduntzea.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Goazen 2030 estrategiaren jarduketaradatzeko bat da sexu ustiapena helburu duen salerosketaren biktima diren pertsonen laguntzeko plan bat egitea.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Goazen 2030 estrategiaren 2. ardatz estrategikoan jasota dagoenez, Bizkaiak helburutzat jarri du berdintasuna lortzea, eta gaiarekin zerikusia duten bi konpromisotan gauzatzen da hori:

1. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren baliabideak erabiltzea errealitate horri aurka egiteko eta hura jasaten ari diren pertsonen bizimodu duina lortzen laguntzeko.
2. Bizkaian salerosketaren biktimen alde esku hartzeko plan bat egitea.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Foru Sailak mintegi bat egin du (bi lan-jardunalditan zatitua) hainbat erakunde eta entitateen iritziak eta ekarpenak biltzeko, salerosketaren biktima diren emakumeen aldeko esku-hartze sozialerako etorkizuneko plan hori hobetzeko asmoz.

Kontuan hartu dira Sexu ustiapena helburu duen salerosketaren biktimen eta bizirauleen aldeko esku-hartze sozialerako Bizkaiko Foru Aldundiaren Plana (2019-2021) prestatzen parte hartu duten erakunde, eragile eta entitateek egindako ekarpenak eta alegazioak. Plan horrek bost ardatz ditu:

1. ardatza.- Arreta integrala.
2. ardatza.- Prestakuntza.
3. ardatza.- Prebentzioa eta sentsibilizazioa.
4. ardatza.- Koordinazioa eta sareko lana.
5. ardatza.- Ikerketa eta ezagutzaren hobekuntza.

Azaldutakoaren arabera eta Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 1987/3 Foru Arauaren 17.1º.12 artikuluan zehaztutakoa kontuan hartuz, honako erabaki hau proposatzen zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluari:

ERABAKI-PROPOSAMENA

LEHENENGOA. Sexu ustiapena helburu duen salerosketaren biktimen eta bizirauleen aldeko esku-hartze sozialerako Bizkaiko Foru Aldundiaren Plana (2019-2021) onestea. Erabaki honi batu zaio 1. eranskin gisa.

BIGARRENA. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatua ahalduntzea hori garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

HIRUGARRENA. Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitaterako Zuzendaritza Nagusiari erabaki honen berri ematea

Bilbo, 2019ko martxoaren 6a

GENERO POLITIKETARAKO ETA DIBERTSITATERAKO IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Cristina Sarduy Gainza

O. I./ VºBº

BERDINTASUNERAKO, LANKIDETZARAKO ETA DIBERTSITATERAKO ZUZENDARI NAGUSIA

Sin.: María Guijarro Ceballos

ENPLEGUA, GIZARTE INKLUSIOA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO SAI- LEKO FORU DIPUTATUA

Sin./Fdo.:María Teresa Laespada Martínez

GIZARTEAN ESKU HARTZEKO PLANA SEXU-ESPLOTAZIORAKO PERTSONEN SALEROSKETAREN BIKTIMEKIN ETA HORRETATIK BIZIRIK IRTEN DIRENEKIN (2019-2021)

HELBURUAK

1. ardatza: Arreta osoa

1.1. helburua: arreta osoa bermatzea sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima edo balizko biktima guztiei eta euren seme-alabei.

1.2. helburua: sexu-esplotazioaren eta salerosketaren biktimak diren pertsonen oztopoak desagerrarazten laguntzea oinarrizko gizarte eskubideak eskuratzeko.

2. ardatza: Prestakuntza

2.1. helburua: sexu-esplotaziorako salerosketaren gaineko gaikuntza eta trebakuntza bultzatzea administrazio eta erakunde publikoetako eta gizarte entitateetako profesionalentzat.

2.2. helburua: pertsonen salerosketaren arloko Bizkaiko hedabide publikoen eta pribatuen prestakuntza sustatzea.

3. ardatza: Aurrezaintza eta sentsibilizazioa

3.1. helburua: Bizkaiko herritarrak sexu-esplotaziorako salerosketaren errealitateaz jabeaztea, mitoak eta estigmatizazioa hausteko informazioa emanez, eta herritarrak egoera horrek dakartzan giza eskubideen urraketa larrira hurbiltzea.

3.2. helburua: afektibitate-sexu hezkuntza eta genero-harremanen eraldaketa sustatzea sexu-esplotazioaren eskaria murrizteko eta aurrea hartzeko oinarria den aldetik.

4. ardatza: Koordinazioa – sareko lana

4.1. helburua: sexu-esplotaziorako salerosketaren biktimak diren emakumeentzako eta euren seme-alabentzako babesaren eta laguntzaren kalitatea hobetzea.

4.2. helburua: balizko biktima adingabeak antzematean erantzun hobe ematea.

4.3. helburua: foru zerbitzuen arteko koordinazioa hobetzea, sexu-esplotaziorako salerosketaren biktimekiko eta horretatik bizirik irten diren pertsonetikiko eta euren seme-alabekiko arlo askotako esku-hartzea errazteko.

5. ardatza: Ikerketa eta jakintza hobetzea

5.1. helburua: Bizkaiko sexu-esplotaziorako salerosketaren errealitatea ezagutzea, baita egoera edo arrisku horretan dauden emakumeen eta haurren beharrak ere.

5.2. helburua: sexu-esplotaziorako salerosketako balizko kasuetan jarduteko eta horiek detektatzeko ezagutza eta tresna gehiago izatea

ERANSKINA



1. ardatza: Arreta osoa

Helburuak	Neurriak eta jarduketak	Noiz jarri den murrax	Maiztasuna	Adierazleak	Arduraduna
Sexu-esplotaziorako salerosketaren biktimak edo balizko biktimak direnei arreta osoa bermatzea.	1.- Emakunderen salerosketaren biktimentzako premiazko harrera-pisutik Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuko epe ertaineko eta luzeko egonaldiko egoitza programetara bideratzea, gutxieneko plazak bermatuz. 2.- Salerosketaren biktimentzako eta euren seme-alabentzako ibilbide espezializatua sortzea Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuko epe ertaineko eta luzeko egoitzetan sartzeko.	2019ko 1. sei hilekoan		Protokoloa Emakunderekin batera egitea.	Emakumeak Babesteko Atala
	3.- Bizkaiko Foru Aldundiko Emakumearen eta Familien arioko irabazteko asmorik gabeko entitateentzako urteko diru-laguntzetan jardueraren bat sartzea, sexu-esplotaziorako salerosketaren balizko biktimak diren emakumeak eta euren seme-alabak jabe-araztea eta arreta eskaintzea.	2018ko 2. sei hilekoan	Urtekoa	-Berriazko diru-laguntza lerroa egitea. - Diru-laguntza jaso duten proiektuen kop.	Emakumeak Babesteko Atala
	4.- Tartekari Sarean barruan, sexu-esplotaziorako salerosketaren balizko biktimak diren emakumeak detektatu, orientatu, informatu eta laguntzeko gizarte eragileak sortzea.	2019ko 1. sei hilekoan	Urtekoa	Tartekari Sarean parte hartzen duten emakume migratzaile berrien elkarrean kop. Eragile partaideen kop.	Emakumeak Babesteko Atala
	5.- Kultura arteko bitartekaritza sustatzea sexu-esplotaziorako arrisku handiagoa duten migratzaileen komunitateekin.	2019ko 1. sei hilekoan	Urtekoa	Parte hartzen duten gizarte erakundeen kop. Eginiko kultura arteko bitartekaritza jarduketaren kop.	Berdintasunerako, Lan-kidetzarako eta Dibertsitateerako Zuzendaritza

Sexu-esplotziorako salerosketaren salerosketaren balizko biktimek eta euren seme-alabek oinarriko gizarite eskubideak eskuratzeko dituzten oztopoak desagerrarazten laguntzea.	6.- Sexu-esplotziorako salerosketaren biktimatzen detektaturiko emakumeentzako prestakuntza eta laneko ibilbidea sortzea, lan-merkatu formalean sartzeko beharrezko tresnak eta gaitasunak eskuratzean, entitate espezializatuekiko elkarlanean.	2021eko 1. sei hilabekoan	Urtekoa	Prestakuntza eta lan ibilbidea egitea. Ibilbidean parte hartzen duten emakumeen kop.	Enplegua Sustatzeko Zuzendaritza
Sexu-esplotziorako salerosketaren balizko biktimek eta euren seme-alabek oinarriko gizarite eskubideak eskuratzeko dituzten oztopoak desagerrarazten laguntzea.	7.- Bizkaiko Foru Aldundiko zerbitzu juridikoa izatea bermatzea sexu-esplotziorako salerosketaren biktimei gizarite-zuzenbideko laguntza emateko, baita horretara deribatzen diren protokoloak sortzea ere.		E-tengabea	Sexu-esplotziorako salerosketaren biktimei eginiko aholkularitza juridikoen kop. Zerbitzu juridikora deribatutako protokoloen kop. Eginiko deribazioen kop.	Emakumeak Babesteko Atala
Sexu-esplotziorako salerosketaren biktimek gizarite prestazioak eta laguntzak eskuratzeko dituzten oztopoak desagerrarazten laguntzea.	8.- Sexu-esplotziorako salerosketaren biktimek gizarite prestazioak eta laguntzak eskuratzeko dituzten oztopoak desagerrarazten laguntzea.	2020		Txostena egitea.	Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua
Sexu-esplotziorako salerosketaren biktimek gizarite prestazioak eta laguntzak eskuratzeko dituzten oztopoak desagerrarazten laguntzea.	9.- Gizaritaratzeko eta laneratzeko berriarazko ibilbidea sortzea sexu-esplotziorako salerosketaren biktimatzen detektaturiko emakumeentzat.	2021		Gizaritaratzeko eta laneratzeko berriarazko ibilbide bat egitea. Ibilbidean parte hartzen duten emakume biktimen kop.	Enplegua Sustatzeko Zerbitzua

2. ardatza: Prestakuntza

Helburuak	Jarduketak	Noiz jarriko den marbxan	Maiztasuna	Adierazleak	Arduradunak
Sexu-esplotziorako salerosketari buruzko galkuntza eta prestakuntza bultzatzea administrazioko eta erakunde publikoetako eta gizarte entitateetako profesionalentzat.	10.- Bizkaiko Foru Aldundiko administrazioko profesionalak eta gizarte eragileak trebatzea eta informatzeko (berriaz eta espezializatuta) sexu-esplotziorako salerosketaren biktimak detektatu, identifikatu eta laguntzeko. 11.- Hezkuntza formaleko eta ez-formaleko profesionalentzako jardunaldiak eta hausnarketa saiok egitea, sexu-esplotziorako salerosketaren biktimen egoerari eta arazoei buruzkoak. 12.- Herritarrentzat sentsibilizazio kanpainak egitea	2020 2020	Urtekoa Urtekoa	Eginiko prestakuntzako ikastaroen edo saioken kop. Administrazio partaideen gizarte eta lanbide eragileen kop. Eginiko eztabaida eta jardunaldien kop. Partaideen kop.	Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitateko Zuzendaritza Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitateko Zuzendaritza Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitateko Zuzendaritza
	13.- Sexu-esplotziorako salerosketari, trafikoiari, migrazio politikari eta asilo eskubideei buruzko prestakuntza, genero-ikuspegitik, gizarte entitateetan. E makumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuko programetan eta Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitateko Zuzendaritzan.	2019	Urtekoa	Eginiko prestakuntzen kop. Profesional partaideen kop.	Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitateko Zuzendaritza

	14.- Sexu-esplotazioarako salerosketaren biktimen detekzio espezializatuen gaineko prestakuntza gizarte entitateentzat eta Emakumea Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuko arreta programetan.	2019	Urtekoa	Eginiko prestakuntzen kop. Profesional partaideen kop.	Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitateko Zuzendaritza
	15.- Prestakuntza espezializatua. Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuko arreta psikologikoko zerbitzuari, sexu-esplotazioarako salerosketaren biktimetako arreta osoa eskaintzeko.	2020	Urtekoa	Eginiko prestakuntzen kop. Profesional partaideen kop.	Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua
	16.- Prestakuntza espezializatua zerbitzu juridikoari, sexu-esplotazioarako salerosketaren biktimei eta asiloari buruzkoa, genero eta giza eskubideen ikuspegitik.	2020	Urtekoa	Eginiko prestakuntzen kop. Profesional partaideen kop.	Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua
	17. Prestakuntza espezializatua Tartekari Sareari, sexu-esplotazioarako emakumeen salerosketaren, detekzio adierazleen eta deribazio-protokoloen gainekoa.	2019	Urtekoa	Eginiko prestakuntzen kop. Tartekari Sareko eragile partaideen kop.	Emakumeak Babesteko Atala
Bizkaiko hedabide publikoek eta pribatuek arlo horretako prestakuntza sustatzea, estereotipoak eta estigmatizazioa ekiditeko.	18.- Sexu-esplotazioarako salerosketari eta prostituzioari buruzko albisteen tratamendurako gomendioen gida sortzea, genero-ikuspegitik eta komunikazioaren profesionallek egina.	2021		Cida egitea.	Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitateko Zuzendaritza
	19.- Gida ezagutaraztea Bizkaiko hedabideei prestakuntza saioen bidez.	2021	Urtekoa	Eginiko prestakuntzen kop. Komunikazio profesional partaideen kop.	Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitateko

3. ardatza: Sentsibilizazioa eta aurrezaintza

Helburuak	Jarduketak	Noiz jarriko den marbxan	Maiztasuna	Adierazleak	Arduradunak
Bizkaiko herritarrak sexu-esplotaziorako salerosketaren errealitateaz jabe-araztea, mitoak eta estigmatizazioa hausteko informazio emanez eta egoera horrek giza eskubideen aldetik dakarren urraketara hurbiltzea herritarrak.	20.- Sexu-esplotaziorako salerosketaz kontzientziatzeko kanpainak egitea balizko gizon bezeroentzat, hurbileko lanaren bidez. 21.- Hitzaldi eta mintegi zikloak egitea sexu-esplotaziorako salerosketaren errealitatea eta kausak aztertzekeo.	2020	Urtekoa	Eginiko kanpainen kop. Kontaktaturiko balizko gizonezko bezeroen kop.	Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitatearako Zuzendaritza
	22.- Sexu-esplotaziorako salerosketaren kausen inguruko sentsibilizazio, ikerketa eta kontzientziazio lerroa irekitzea Bizkaiko Foru Aldundiko garapenerako kooperazioko urteko diru-laguntzetarako hezkuntzaren atalaren barruan.	2020	Urtekoa	Gizartea era idatzeko hezkuntzarako lerroaren barruan diru-laguntza jasotzen duten proiektuen kop.	Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitatearako Zuzendaritza
	23.- Hedabideetako ordezkariekin lan egitea sexu-esplotaziorako salerosketaren biktimen informazio-tratara hobetzeko, estereotipoak eta estigmatizazioa alde batera utzita.	2021	Urtekoa	Hitzartutako hedabideen kop. Argitaraturiko artikulu/erreportaje positiboen eta negatiboen kop.	Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitatearako Zuzendaritza

<p>Afektibitate-sexu hezkuntza eta genero-harremanen eraldaketa sustatzea, sexu-esplotazioa eta emakumeen salerosketaren aurrezaintzarako.</p>	<p>24. DBHko eta Batxilergoko irakasleentzako baliabide didaktikoak egitea, afektibitate-sexu hezkuntzari eta sexualitate arduratsuari buruzkoak.</p> <p>25.-Berdintasunezko harremanak eta sexualitate arduratsua sustatzen dituzten sentsibilizazio-jarduketak egitea ikasketxeetan, IGEtan, gazteen elkarteetan eta aisialdian nerabeekin eta gazteekin lan egiten duten beste entitate batzuekin.</p>	<p>2021</p>		<p>Eginiko prestakuntza giden kop.</p>	<p>Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitatetarako Zuzendaritza</p> <p>Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitatetarako Zuzendaritza</p>
--	---	-------------	--	--	---

4. ardatza: Koordinazioa – Sareko lana

Helburuak	Jarduketak	Noiz jarriko den marbxan	Maiztasuna	Adierazleak	Arduradunak
Salerosketaren biktimetzako eta euren seme-alabentzako babesaren eta laguntzaren kalitatea hobetzea.	26.- Koordinazioa eta elkarlan handiagoa Estatuko segurtasuneko indar eta kidetuekin eta berriaz sexu-esplotazioarako salerosketaren arloan lan egiten duten erakundeekin. 27.- Koordinazioarako eta partaidetzarako gunea sortzea informazioa, koordinazioa eta deribazioa hobetzeko, Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuak, Haurren Zerbitzuak, Berdintasun Sailak eta Bizkaiko sexu-esplotazioarako salerosketaren biktimen eta seme-alaben aurrezaintzan, arretan eta esku-hartzean lan egiten duten entitateek osatua.	2020	Etengabea	Eginiko bileren kop.	Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza
	28.- Lankidetzaz itatea Bizkaiko Gobernuaren Ordezkariordeztarekin atzeritarrei buruzko erregelamendua abiarazteari eta sexu-esplotazioarako salerosketaren biktimak diren eta egoera irregularrean dauden emakumeen egoerari dagokienez.	2020	Etengabea	Koordinatuzko eta parte hartzeako gunea sortzea	Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua
	29.- Harremanetan izatea ahal diren kontsultuekin dokumentazio prozesuak bizkortzeko.	2020		Eginiko bileren kop.	Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza

Balitzko biktima adingabeak detektatzean eman beharreko erantzuna hobetzea.	30.- Haurren Zerbitzuarekin batera protokolo bat egitea pertsonen salerosketaren biktima adingabeak deribatzeke, betiere foru egoitzen eta gizarte entitateen laguntzaz.	2020ko 1. seihelekoan		Deribazio-protokoloa egitea.	Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua
Foru zerbitzuen arteko koordinazioa hobetzea arlo askotako esku-hartzea errazteko sexu-esplotaziorako salerosketaren biktimekin eta euren seme-alabekin.	31.- Kasuak koordinatzeko eta deribatzeke mekanismoak ezartzea Haurren Zerbitzuaren eta Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuen artean.	2019ko 1. seihelekoan		Koordinazio-gunea sortzea. Eginiko koordinazio-bileren kop.	Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua
	32.- Topagune, komunikazio eta lankidetzaz bilerak sortzea Aldundiaren eta Emakunderen artean.	2020	Urtekoa	Eginiko lankidetzaz bileren kop.	Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza

5. ardatza: Ikerketa eta jakintza hobetzea

Helburuak	Jarduketak	Noiz jarriko den marbxan	Maiztasuna	Adierazleak	Arduradunak
Bizkaiko sexu-esplotaziorako salerosketaren errealitatea ezaagutzea, baita egoera edo arrisku horretan dauden emakumeen eta haurren beharrik ere.	33.- Bizkaiko sexu-esplotazioaren biktimak diren emakumeen errealitatea aztertzea EAEn eginiko azterlan kuantitatiboak eta kualitatiboak oinarri hartuta. 34.- Sexu-esplotaziorako salerosketaren balizko biktimatzat detektaturiko emakumeen egoerari buruzko azterlana egitea eta horien behar psikosozialak eta eskariak jasotzea bertan.	2020		Bizkaiko sexu-esplotaziorako salerosketaren errealitatea aztertzeko berarizko txostena egitea (datu kuantitatiboak eta kualitatiboak) Azterlana egitea.	Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitateerako Zuzendaritza Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitateerako Zuzendaritza
	35.- Sexu-esplotaziorako salerosketak Bizkaiko hedabideetan duen tratamenduari buruzko azterlana egitea. 36.- Pertsonen salerosketari buruzko atal espezifikoa sartzea Bizkaiko Aldundiko Indarkeria Matxistaren Behatokia, sexu-esplotaziorako salerosketaren biktimen arretari eta kasuei buruzko urteko informazioa bilduta (datuak eta txostenak).	2019		Azterlana egitea.	Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitateerako Zuzendaritza Emakumeak Babesteko Atala

<p>Administrazioak eta gizarte zerbitzu espezializatuek jarduteko tresnak eta ezagutza handiagoa izatea.</p>	<p>37. Salerosketaren balizko biktimak detektatzeko adierazleen gida sortzea. Bizkaiko gizarte entitate guztiek eta herri administrazioak adostua.</p> <p>38. Urteko eztabaida-foroak sortzea unibertsitatearen, profesionalen eta herri administrazioaren artean, sexu-esplotazioarako salerosketaren arloko jarduketaren eta esku-hartzearen erreduei buruzkoak.</p>	<p>2019ko 1. seihilekoan</p> <p>2019ko 2. seihilekoan</p>		<p>Balizko biktimak detektatzeko adierazle komunen gida adostuta egitea.</p> <p>Eginiko eztabaida-foroen kop.</p>	<p>Emakumeak Babesteko Atala</p> <p>Emakumeak Babesteko Atala</p>
--	--	---	--	---	---

